

2018-04-27 OSTIRALA / 638. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Euskaraldian izena eman ez duten herriei parte hartzeko gonbidapena luzatu diete / 5

Altsasuko auzian fiskalak 375 urteko zigor eskaerari eutsi dio. Heldu den astean segituko du auziak / 3



Pentsio duinen alde astelehenero 19:30ean, Altsasun kontzentrazioa eginen dute / 11

29. Sakanako Ibilaldi Handia Irurtzundik bihar abiatuko da. 768 mendizale izena emanda daude / 17


Maiatzak jasoko dira asteartean Etxarri Aranatzan, Bakaikun, Iturmendin eta Ziordian / 5




Maiatzak 1. Langilearen egunerako hainbat deialdi egin dituzte Nafarroan zehar / 12

June Kintanarendako urrezko domina berria, Espainiako Unibertsitate Txapelketakoa / 19

lortuiko antzerki tailerrak ikasturteko lana bihar erakutsiko du Altsasuko kultur gunean / 21



20.185
sakandar bakoitzak
471,32 kg





Senideak auzipetuak agurtzen auzitegira sartzen direnean. ALTSASUKOAK ASKE

Akusazioei eutsi die fiskalak

Joan den urteko garilean egin zuen 375 urteko espetxe zigor eskaerari eutsi dio Altsasuko auziko fiskalak. Orduan bezala orain ere zigor alternatiboak eskatu ditu, 6 eta 17 urte eta erdira artekoak. Epaiketa heldu den astean despedituko da.

ALTSASU

Espainiako Auzitegi Nazionalen Altsasuko auziaren epaiketa gaur zen despeditzekoa. Baina gaur Auzitegiaren bilkura dago eta, horregatik, ez da epaiketarik izanen. Gainera, heldu den astearte eta asteazkenean Madrilen jai da. Beraz, ostegunean segituko luke epaiketak. Defentsek euren txostenak aurkeztuko litzukete eta horrela epaiketa despedituko litzateke. Printzipioz ostegunean despedituko litzateke epaiketa, bestela ostiralera arte luzatzeko aukera dago.

Atzo Jose Perals fiskalak esan zuen epaitutakoa "ez zela tabernako liskar bat izan, antolatutakoa izan zen guardia civilak eta bere bikotekideak erasotzeko helburuz". Kasu horretan "terrorismo" kontsiderazioa zaila zela aitortu zuen, baina Guardia Civilaren tesiarekin bat egin zuen fiskalak eta Altsasukoa "intentsitate apaleko terrorismoa" dela adierazi zuen. Horretarako, Alde Hemendik mugimendua "ETAren konglomeratua- ren baitan" kokatu zuen fiskaltzak bere ondorioetan. Hartaz "baliatu" ziren akusatuak.

Fiskalak zortzi auzipetuendako garilean egin zuen zigor eskaerari eutsi zion: Ainarari 12 urte eta erdiko espetxe zigorra "mehatxu terrorista" egin izanagatik; launa "terrorismo delitu", hau da, 50 urteko espetxe zigorra Jokin, Jon Ander, Julen, Adur, Aratz eta Iñakirendako eta Oihanendako aurreko seien eskaera eta "mehatxu terroristagatik" beste 12 urte eta erdiko zigorra eskatu du. Guztira 375 urte. Horri inhabilitazioak eta isunak gehitu beharko litzazkioke. Eta epaileek terrorismo

eskaera aintzat hartzen ez badute zigor eskaera alternatiboak egin zuen. Garileko eskaeran zazpi gizonekoendako espetxe zigor eskaera alternatiboak zeuden, ez Ainararendako. Oraingoan, ordea, azken horrendako 6 urteko zigorra eskatzen du. Oihanendako 17 urte eta erdiko eskaera egin du: desordena publiko terroristengatik eta hiru lesio deliturengatik, emakumezkoen kasuan genero larrigarriarekin Jokin, Jon Ander, Julen, Adur eta Aratzendako, berriz, 17 urteko espetxe zigor eskaera alternatiboak eskatu du, Oihanen eskaera berarekin, mehatxuena salbu. Azkenik, Iñakirendako 13 urte eskatu ditu alternatibagisa, emakumeetako bati lesioak eragiteagatik litzateke.

Akusazioak

Estatuko Abokatuak bere egin zituen fiskaltzaren zigor eskaerak. Akusatzaileen zauriak frogatuak daudela eta ardura zibilarri erreparatu zion.

Bi emakumezkoen ordezkari Jaime Zuzak ziurtatu zuen gizonzkoen eta emakumezkoen kontrako indarkeria egon zela; "maila apaleko terrorismoa dei-

tu dakiok, baina terrorismoa da". Erantzukizun zibilengatik 48.000 euroko kalte-ordaina eskatu zituen.

Herri akusazioetako bat Covite da. Eta haren ordezkari Ruben Mugikak esan zuen guardia civilak eta haien bikoteak zirelako "erasotu" zituztela. Horregatik, epaileek gertakarian terrorismo deliturik ikusiko ez balute, Mujikak "gorroto" larrigarria ezartzea eskatu zuen.

Asociacion Unificada de Guardia Civil elkarteko ordezkariak eraso planifikatua izan zela nabarmendu zuen.

Astean zehar aditu edo perituen lekukotzak entzun dira auziaretoan. Haien artean ere kontrasesanak daude. Esaterako bi auzitegi medikuk sinesgarritasuna eman zioten lau salatzaileei. Baina defentsek deitutako bi medikuek kontrakoa esan zuten. Guardia Civileko perituek ere ETArek eta Ospa mugimendua- ren arteko lotura argudiatzen saiatu ziren, baina horrelako zerbait erakutsiko lukeen dokumenturik ez dutela onartu zuten. Zeresana eman duen azkena Iñakik gertakarien gauean grabatutako bideoa izan da.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako egokia
5.900€



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

50
—
%80
—
10

Guaixe fundazioaren bazkidetzaren %80a itzuliko zaizu

Urtean 50 euro ordaindu eta 40 euro
berreskuratuko dituzu errenta aitorpenean.

2017ko ziurtagiria eskatu:

admin@guaixe.eus edo 948 564 275,

Foru plaza 23, 1. solairua, Altsasu





ASTEKOA

RAF ATXURI

Bor-bor egunak

Azken asteotan historiaren salda modu ezinago bizkorrean egosten ari delako irudipena daukat. Gertakari gehiegi denbora laburrean, alegia.

Kuban 1959-1960az geroztik castrotarrak izan dira gobernuburuak, orain Díaz-Canel deiturako agintari berria dute. Karibeko irlan zer ondorio ekar dezakeen aldaketak ikusteko dago. Ipar Korean, bestalde, entsaio nuklearrak egiteari uko egitekotan dabil Kim Jong-Un, eta bi Koreen arteko giroa goxatzen ari omen da. Gogora dezagun Koreako bi errepublikek oraindik ez dutela bake-akordiorik sinatu.

Gurera eginez ETAre azken adioa gain-gainean daukagu. Eragindako kalteaz hausnarketa egin ondoren ETak maiatzaren hasieran Kanbon emanen dio amaiera bere izate luzeari. Egitate honek gerora ekar dezakeenaz zalantza handia sortzen da, presoen egoerari dagokionez, batez ere. Orain omen dator kontakizunaren gerra, baina nola etorri aspalditik bertan-bertan zegoena?

Eta gure-gurera eginez, Altsasuko auzia gori-gorian. Apirilaren 14an Iruñean elkartasuna ari izan zuen, goian behean, barra-barra eta erauntsian. Azken hamarkadetan Nafarroan izan den jende-elkarterik handienetakoa duintasuna, irmotasuna eta maitasuna gailendu ziren bazter guztietan. Protesta historikoaren sentsazioak ongi barneratzeak denborarik gabe, Auzitegi Nazionalen epaiketa guztien "ama eta aita" abiatu zen.

Lerroalde hauek argitaratuko orduko epaiketa-saioak amaitzekotan egonen dira. Lehen astean ikusitakoaren eta entzundakoaren arabera, defentsaren estrategiak hainbat gezur eta sasi egia desmuntatu ditu modu agerian. Bitartean bihoa hemendik espeteratu, auziperatu eta ahaideenganako nire elkartasunezko besarkada.

GUTUNA

"Seme" proiektua

JOXE ALDASORO JAUREGI
"SEME" PROIEKTUAREN LAN TALDEAREN
IZENEAN

"Haurrek eskubideak dituzte eta, helduok, eskubide horiek betearazteko obligazioa" dio Francesco Tonucci psikologo eta ikerlariak. Proiektuak helburu horixe du: Etxarriko haur baten eskubideak gauzatzeko.

Hiru moduz urratzen dizkiote. Lehenengoa: ezin da aitarekin, Oihan Barandalla Goñirekin, bizi. Bigarrena: ez daki kalean noiz ikusiko duen, azalduta ere, ulertzeko gai ez delako. Hirugarrena, berrehun eta laurogeita hamasei kilometro egin behar ditu ikusteko eta, beste hainbeste, etxera itzultzeko.

Sentitzen duena zehazki ez dakigun arren, litekeena da

gure haurra urduri jartzea bisitaren bezperan. Ordu luzeak eman beharko ditu kotxean. Aita ikusiko duelako poza, nekearekin, asperdurarekin nahasiko zaio. Egunak beharko ditu egunerokotasunera egokitzeak. Bidaiaren nekeak desagertu egingo dira. Ezinegona, lotarako arazoak, urduritasuna, gogo aldarte aldakorra, erruduntasuna, espazioan kokatzeko zailtasunak, apatia eta neke orokorra, agian ez.

Asteburutan egiten diren jardura askotan ez du parte hartuko, haserretuko da agian, eta litekeena da haserre berak, erruduntasun sentimendua pizteak. Diruaren aferra: bidaietan gastatzen den dirua ez da haurraren

beharrak eta nahiak asetzen gastatzen.

Errealitatea ezagutarazi nahi du Seme proiektuak. Oihan Barandalla Goñik kantu bat ateratu du Lannemezan espespetetik. Gitarrak, armonikak eta ahotsez sortutako ideia abesti bihurtu dute hainbat musikariek. Oihanek, semearen jaiotza nola bizi izan duen kantatzen digu.

Larunbatean, eguerdiko hamabi eta erdietan, Etxarriko Kultura Etxean abestia eta bideoklipa ezagutzera emango ditugu. Izan daitezela musika eta hitza egoera aldatzeko tresna. Ekitaldian, baita ere, gure elkartasun eta samurtasun guztia eskaini nahi diegu Etxarriko motxiladun haur guztiei (Asier, Unai eta Juan Ramon seme-alabei). Denok izango zarete ongi etorriak!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Eztanda!

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Ba, azkenean, eztanda egin du jubilatuen egoerak eta atzera bueltarik ez duela dirudi. Urte hasi bazen hasi, azkeneko bost urte hauetan ez bezala, kezka eta amorrua sortu zuen 0,25eko igoera lotsagarri horrekin. Burlatan hartu genuen Baezek bidali zigun eskutitza, milaka

karta itzuli zitzaizkion Fatima andreari.

Askotan galdetu diot nire buruari, zergatik orain eta duela 5 urte ez? Orduko iragarpen kezkarriak gauzatu direlako. Hasiera batean ondorio larrik ez genuen ikusi, baina KPI (IPC.) gora joan den heinean, gure pentsioen eros ahalmena nabarmen jaitsi da, eta iragarri bezala, gaur egun arriskuan ikusten dugu duintasunez bizitzeko eskubidea. Eta

jubilatuok, aho batez, ASKI DA esan dugu.

"Kalea gurea da", "atzera pausorik ez", "borroka hau gurea da", entzuten zaie manifestariei beren amorrua agertzerakoan. Jubilatuen irudia aldatu beharra zegoen eta aldatzen ari da. Ez gaude ematen digutenarekin miserian bizitzeko prest. Gure eskubideak aldarrikatzen ditugu, ez dugu karitatetik bizi nahi. Pobreziaren muga gainditzen

duen 1.080 euroko pentsioa, KPIin oinarritzen den igoera, Pentsio Sistema Publikoaren bermea, prekaritatea desagertzeko erabakiak.

Sakanako jubilatuen erantzunak ere gora egin du. Azkeneko bi hilabete hauetan egin ditugun kontzentrazioak jendetsuagoak izan dira, beldurra eta lotsa gainditzen ari garela dirudi, eta hori pozgarria da. Dagokiguna defendatzeko ez dugu inoren beharrik, gu

geurea defendatzeko gai bagara; hori da borroka honen azpian dagoena.

Jarrai dezagun gure protestarekin. Maiatzaren 8an, goizeko 11:00etan Irurtzunen eta maiatzaren 28an Etxarri Aranatzeko ikusiko gara berriz. Beste aukera batzuk: Altsasun astelehenero plataformak deituta eta, hilaren lehendabiziko ostiralean Pentsionistak Martxan taldeak deituta.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
krolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Euskaraldiaren Sakanako aurkezpenaren ondoren zazpi herrik eman dute izena ekimenean. ARTXIBOA

Euskaraldian kale ez egiteko gonbidapena

Aurkezpen eta herrietako talde motorren prestaketa saioa maiatzaren 9an prestatu dute eta hara joateko deia egin diete izena eman ez duten herrietako udal eta euskaltzaleei. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskararen erabilera bultzatu nahi da

SAKANA

Administrazioak, Nafarroako Gobernu barne, eta euskalgintzak bat egin dute Euskaraldia sustatzeko. Guztira Euskal Herriko lurralde guztietako 32 erakunde eta eragile euskaltzalek bat egin dute eta euren asmoa argia eta garbia da: gure hizkuntzaren erabilerari bultzada eman nahi dio Euskaraldiak Euskal Herri osoan. Horretarako, 11 egunetan ahalik eta euskara gehien egitea proposatu dute. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra izanen da hori. Jakinik, denbora tarte horretan ohitura txiki asko aldatu eta euskarari arnas berria emateko aukera dago.

Euskaraldian parte hartzeko, lehenik herriek eman behar dute izena eta, ondoren, herri horietako herritarrek. Sakanan dagoeneko zazpi dira izena eman duten herriak: Irurtzun, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Urdiain. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik jakinarazi dutenez, Euskaraldian izena eman ez duten herriek oraindik ere horretarako aukera izanen dute.

Izan ere, maiatzaren 9rako saioa antolatu du eta horretan Euskaltzaleen Topaguneak Euskaraldiari buruzko oinarritzko informazioa emanen du Manken Lakuntzako egoitzan. Horre-

gatik, izena eman ez duten herrietako udaletako eta euskalgintzako ordezkariak hara joateko gonbidapena luzatu zaie. Saioa bukatu ondoren izena eman ez duten herrietako ordezkariak bilduko lirateke eta han erabakiko lukete aurrera egin edo ez.

Topaguneak maiatzaren 9an emanen duen saio horrek bigarren zatian izena eman duten herrietakoendako ahalduntzeko saioa izanen da eta Euskaraldia herrian aurrera aterako duen talde motorrak osatuko dituzten pertsonak elkartu nahi dituzte. Saioaren bidez talde motorrei laguntza eskaintzea eta egitasmoa martxan jartzeko irizpideak emanen dizkiete.

Maiatzak jasotzeko indarrak biltzen hasi dira

Etxarri Aranatz, Bakaikun, Iturmendin eta Ziordian jasoko dituzten pagoak asteartean

SAKANA

Atzera ere bete da esaera eta maiatzaren lehenerako hostoa haitz gainean dago, ikusgarri. Eguraldi onarekin aziendak mendirako bidea hartuko du. Aurretik, bihar, mendirako bidea hartuko dutenak bakaikuar mordo bat izanen da. 09:00etan plazatik abiatuko dira. 11:00etan barga gainean izanen dira eta prestaketa lanak eginen dituzte. Eguerdian ekinen diote lanari. Etxarriarrak ere ordurako mendian izanen dira eta haiek 12:30ak aldera hasiko dira maiatza, pago enborra, jasotzen.

Ziordian, lana bitan eginen dute. Txipudian 10:30ean jasoko dute bat. Eta Urbasara igoko dira gero, herri parean beste maiatza bat jasoko dute eguerdi partean. Handik jaitsi eta 15:00etan herri bazkaria izanen da Altsasuko auzipetuen alde.



2017ko Ziordiko maiatza. ARTXIBOA

Astelehenean jasoko den azken maiatza pasa den larunbatean moztu eta txuritu zuten 20 bat metroko enborra. 18:00etan hasiko dira maiatza jasotzen. Hilabete plazan zutik eman ondoren, hura kendu eta egurreko dirua kintoendako izanen da.

Sakanako batua ikasten

Koldo Zuazo hizkuntzalariak, filologian doktorea, Sakanako euskara batua edo estandarrari buruzko ikastaroa eman du azken bi asteazkenetan. 25 sakandar izan dira saioetan eta haiei Zuazok "ahozko eta idatzizko jardunetan, bertako hitzak, esapideak, eta bereizgarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak kontuan hartzea" proposatu zien.



MANK-EKO EUSKARA ZERBITZUA

Esataria: Alfredo Gaurko gaiak:

- Pedro Jose Rodriguez Larrañaga klabezin jolea
- Asteko errepassoa
- Altsasuko antzerki tailerraren emanaldiaz Birjiñe Albirarekin

Ostiralero 9:30ean
SAIOA Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



SAKANA

Sakanan 2017an 2016an baino hondakin gehiago sortu genuen, 221.686,33 kilo gehiago, hau da, % 2,38ko igoera. Birziklatu ere gehiago birziklatu edo konpostatu dugu, 155.210,33 kilo hain zuzen ere, % 3,07 gehiago. Sakanako Mankomunitateko Hondakin Bilketa Zerbitzuetik gogorazi dute Europar Batasunak 2.020 urterako hondakinen erdia gaika bildu behar dela. Sakanan dagoeneko lortu da etxebizitzetako gaikako bilketa % 55,99ra iristea. Mank-etik jakinarazi dutenez, "Nafarroako batz bestekoa baino %40 gehiago birziklatzen da Sakanan gaur egun".

Hala ere, ibarrean birziklatzea ez da uniforme. Hondakinak biltzeko lau sistema daude eta soilik haietatik bitan gaintzen da Europak ezarritakoa: atez atekoan % 78,11 (Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Arantz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olatzagutia, 8.568 biztanle) eta mistoan % 63,75 (Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena, Lizarragabengoa eta Ziordia, 2.015). Altsasun (5. edukiontzia, 7.419 biztanle) eta Irurtzunen (auzo-konpostagailuak, 2.183 biztanle) gaikako bilketa tasak % 33,22 eta % 39,68 dira. Beraz, bi herri horietako bilketa tasa hobetzearekin Sakanakoak berak ere gora eginen luke, bien artean Sakanako errefusaren % 67,3 sortzen baitute.

Bide horretan Altsasun aurten indarrean jarri dute 5. edukiontzia bidez materia organiko bilketa. Dagoeneko joan den urtean baino 10 puntu gorago dago gaikako bilketa Altsasun: % 36,47. Urte hasieratik ia 4 puntu hazi da. Herrian dauden 3.778 etxeetatik dagoeneko 602



Udalak eta Mank-ek akordioa itxi dute eta urte akaberarako % 65eko birziklatze tasa lortu nahi dute ARTXIBOA

Birziklatzea, koska bat gorago

Joan den urtean sortutako 9.513.608,11 kilo hondakinetatik 5.206.932,11 gaikako bilketa bidez jaso zen. Hau da, % 55,99 da, 2016an baino dezima batzuk gehiago. Sakanan 20.185 pertsona bizi ginen eta bakoitzak 471,32 kilo hondakin sortu genituen, aurreko urtean baino 12,58 gehiago. Haietatik 257,96 kilo birziklatu genituen

eman dute izena 5. edukiontzian. Gainera, 179 etxek auto-konpostea egiten dute eta beste 52k auzo-konpostea. Guztira, 803 etxetan bereizten da materia organikoa, % 22,04. Udalak eta Mank-ek akordioa itxi dute eta urte akaberarako % 65eko birziklatze tasa lortu nahi dute. Horretarako, beharrezkoa da gutxienez Altsasuko etxeen % 60k 5. edukiontzian, auto- edo auzo-konpostean izena ematea. Informazioa nahi duenak 900 730 450 doako telefonora hots egin dezake. Altsasuko birziklatze datuak hobetzen lagunduko du ere Pilotajaukun eginen den garbiguneak. Irurtzunen, berriz, zortzi auzo-konpostagailuren bidez 1.069 etxeetatik 67 auto-konpost eta 111 auzo-konpost bidez ari dira materia organikoa kudeatzen, % 16,65.

Sistemak

Mank-ek joan den urtean jasotako hondakinetatik 8.865.725,85 kilo herrietan jaso zituen, % 93,18. Horietatik, 4.964.069,85 gaika bildu zituen, % 55,99. Berrerrabilpen tasa %0,68koa da. 647.882,26 tona industrialdeetan jaso ziren, % 6,81. Kopuru horrietatik gaika 242.862,26 jaso zen, % 37,49.



Centro Integrado Politécnico
FP SAKANA LH
Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Ate irekiko jardunaldia
Maiatzak 8 Asteartea
11:00 h-14:00 h/16:00 h-20:00 h
Hitzaldia 18:00h Charla
19:30 Otamena

Proiektuetan Oinarritutako
Ikaskuntza eta
Zerbitzu-ikaskuntza
Metodologian lan egiten dugu.

Izena emateko epea maiatzaren 7tik 11era:

Goi Mailan

- Mekatronika Industrialia
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa (DUALa)

Ertain Mailan

- Mantenu Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Araubide Bereziko Kirol Ikasketak Eskaladan eta Mendi Ertainan
- Mendekotasun Egoeran Dauden Pertsonen Laguntzea (BERRIA)

Gainera irakasten da:

- Zerbitzu Komertzialak (Oinarrizko LH)
- Profesionaltasun Agiriak...



IKASTETXE BIKAINA
CENTRO EXCELENTE



SKOLAE

BERRIEN BIDEAN
CRECEMOS EN SOLIDARIDAD

Tlfonoa: 948-564-815 WWW.ifpalsasua.net.

2017an etxebizitza bakoitzak sortutako hondakinak

Sistema / Hondakinak	Organikoa	Ontzi arinak eta kartoia	Papera	Beira	Errefusa	Ehunak	Sukaldeko olioia
Altsasu	64,89	37,39	109,76	65,42	569,45	8,40	1,48
Irurtzun	96,68	56,73	134,05	45,77	544,16	8,95	1,78
Atez ate	316,52	57,04	99,05	64,99	177,43	10,99	1,37
Mistoa	273,37	51,44	58,92	68,57	258,27	261,00	1,35
Guztira	751,46	202,60	401,79	244,75	1.549,31	289,34	5,98

Etxebizitza kopurua kudeaketa sistema bakoitzean

Sistema	Kopurua	%
Atez ate	1.583	15,17
Edukiontzia	4.429	42,44
Auto konposta	1.794	17,19
Auzo konposta	2.629	25,19
Guztira	10.435	100,00

Sakandar bakoitzeko sortzen dugun hondakin kiloak

Hondakin mota	Guztira	Hondakinaren %	Sakandar bakoitzeko kiloak	%
Errefusa	4.306.676,00	45,27	213,36	45,27
Organikoa	2.051.538,22	21,56	101,64	21,56
Ontzi arinak	501.231,10	5,27	24,83	5,27
Papera eta kartoia	1.042.610,00	10,96	51,65	10,96
Bestelakoak	842.472,71	8,86	41,74	8,86
Sukaldeko olioia	12.756,00	0,13	0,63	0,13
Ehunak	92.854,08	0,98	4,60	0,98
Beira	663.470,00	6,97	32,87	6,97
Guztira	9.513.608,11	100,00	471,32	100,00

Hondakinak jasotzen diren etxebizitza kopurua

Eremua	Kopurua	%
Altsasu	3.764	36,07
Irurtzun	1.069	10,24
Atez ate	4.424	42,40
Mistoa	1.178	11,29
Sakana	10.435	100,00

Birziklatze tasa

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Errefusa	6.739.840,00	5.290.602,00	4.267.207,00	4.401.365,00	4.240.200,00	4.306.676,00
Gaika bilduta	2.108.432,00	3.138.351,00	4.392.874,00	4.667.397,32	5.051.721,78	5.206.932,00
Guztira	8.848.272,00	8.428.953,00	8.660.081,00	9.068.762,32	9.291.921,78	9.513.608,00
Birziklatze tasa	%23,83	%37,23	%50,79	%51,46	%52,63	%52,93



Gaikako bilketaren bilakaera sistemaka

Eredua	2013*	2013*	2014	2015	2016	2017
Altsasu	23,69	25,40	27,61	27,67	27,64	33,22
Irurtzun	23,69	27,79	29,21	34,75	42,97	39,68
Mistoa	23,69	55,93	61,67	63,51	66,62	63,75
Atez ate	23,69	73,00	80,49	78,35	78,59	78,11
Sakana	23,69	39,71	50,87	51,52	55,65	55,99

OHARRA: 2013KO ERDIALDEAN EZARRI ZIREN HONDAKIN BILKETA SISTEMA BERRIAK. EZARPENAREN AURREKO ETA ONDORENGO URTE HARTAKO EMAITZAK JASOTZEN DIRA TAULAN.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Enkante artizanalean

FLORES S.L.

Nafarroako betiko txistorra

TX

Txartel
Imprenta - Papelería

www.txartel.net
948 564 002
txartel@txartel.net

Errefusa: Hondakin mota horren 66.476 kilo gehiago jaso ziren, % 1,57 gehiago. Sakanan joan den urtean gehien jasotako hondakin mota izan zen, % 44,19. Ibarrean jasotzen den errefusaren % 67,3 Altsasun eta Irurtzunen jasotzen da. Errefusa Tuterako Culebrete plantara eramaten da.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea 2016-2017
Sakana	6.739.840	5.290.602	4.267.207	4.401.365	4.240.200	4.306.676	66.476 1,57

Bilketa sistemaka

	Jasotakoa	%
Altsasu	2.314.885	53,77
Irurtzun	582.453	13,53
Atez atekoa	1.039.078	24,13
Mistoan	346.660	8,05
Ontzi arinei kendutakoa	7.880	0,18
Hondakindegira eramana	14.540	0,34
Guztira	4.305.496	100,00

Papera eta kartoia: 2017an jaso ziren hondakin % 10,95 dira papera eta kartoia, joan den urtean baino 0,5 puntu gutxiago. Jasotakoaren % 79,38 herrietan jaso da eta gainontzeko % 20,62 industrialdeetan. Sakandar bakoitzak 51,65 kilo paper eta kartoi birziklatu genituen, 2016an baino 0,65 kilo gutxiago. Mank-ek papera eta kartoia Bidasoa Ecogestion enpresari saltzen dio.

	2013	2014	2015	2016	2017	2016-2017 aldea
Humana	50.285,00	62.253,00	65.086,00	65.500,00	66.155,00	655,00 1,00
Euskadi-Congo	--	--	7.500,24	7.500,24	10.798,08	3.297,84 43,97
Emaus	36.450,00	61.465,00	16.265,00	10.130,00	15.901,00	5.771,00 56,97
Guztira	86.735,00	123.718,00	88.851,24	83.130,24	92.854,08	9.723,84 11,70

Bilketa sistemaka

	Jasotakoa	%
Altsasu	25.872,84	27,86
Irurtzun	7.940,00	8,55
Atez atekoa	41.860,24	45,08
Mistoan	1.280,00	1,38
Emausgo trapuketariak	15.901,00	17,12
Guztira	92.854,08	100,00

Organikoa: Sakandarrek sortutako hondakin % 21,05 materia organikoa izan zen, 2016an baino 193,401,84 kilo gutxiago, % 8,61eko murriztea. Ibarrek biztanle bakoitzak 101,63 kilo sortu zituen. Atez ate eta 5. edukiontzia bidez jasotako materia organikoa Caparrosoko HTN biogas plantara eramaten da.

	Jasotakoa	%
Konposta Altsasun	77.926,60	3,80
Konposta Irurtzunen	57.063,83	2,78
Konposta mistoan	296.925,31	14,47
Konposta atez ate	950.282,48	46,32
Caparrosora eramana	378.260,00	18,44
Inausketak	291.080,00	14,19
Guztira	2.051.538,22	100,00

Auto-konposta

Eremua	Etxebizitza kopurua	%
Altsasu	179	9,98
Irurtzun	60	3,34
Atez ate	1052	58,64
Mistoa	503	28,04
Sakana	1794	100,00

Auzo-konposta

Eremua	Etxebizitza kopurua	%
Altsasu	54	2,05
Irurtzun	110	4,18
Atez ate	1.790	68,09
Mistoa	675	25,68
Sakana	2.629	100,00

Olioia: Ibarrean 2017an jasotako hondakin guztien % 0,13 olioia izan zen. Sakandar bakoitzak hondakin horren 0,63 kilo birziklatu genituen.

	2013	2014	2015	2016	2017	2016-17 aldea
Bilketa	14.110	15.740	12.576	10.980	8.849	-3.727 -29,64
Garbig.	5.497	5.407	7.973	3.385	3.907	-4.066 -51,00
Guztira	19.607	21.147	20.549	14.365	12.756	-7.793 -37,92

Bilketa sistemaka

	Jasotakoa	%
Altsasu	4.145	27,40
Irurtzun	1.507	9,96
Atez atekoa	4.424	29,24
Mistoan	1.146	7,57
Garbigunea	3.907	25,82
Guztira	15.129	100,00



Ontzi arinak: Mank-ek bildutako hondakinen % 5,26 ontzi arinak izan ziren; sakandar bakoitzeko 24,83 kilo, 2016an baino 4,13 kilo gutxiago. Ontzi arinak Azkoiengo Moratieleko plantara eramaten dira.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2016-2017 aldea
Bildutakoa	330.160	414.710	529.160	558.390	586.630	576.820	-9.810
Kendutakoa*	15.000	23.000	35.000	68.100	71.150	53.272	-17.878
Birziklatu**	311.120	386.620	479.525	491.486	515.480	501.231	-14.249

Bilketa sistemaka

	Jasotakoa	%
Altsasu	139.288,11	27,79
Irurtzun	45.008,59	8,98
Atez atekoa	223.691,00	44,63
Mistoan	56.465,89	11,27
Industrialdeak	36.777,51	7,34
Guztira	501.231,10	100,00



Papera eta kartoia: 2017an jaso ziren hondakinen % 10,95 dira papera eta kartoia, joan den urtean baino 0,5 puntu gutxiago. Jasotakoaren % 79,38 herrietan jaso da eta gainontzeko % 20,62 industrialdeetan. Sakandar bakoitzak 51,65 kilo paper eta kartoi birziklatu genituen, 2016an baino 0,65 kilo gutxiago. Mank-ek papera eta kartoia Bidasoa Ecogestion enpresari saltzen dio.

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2016-2017 aldea
	932.640	935.500	1.004.320	1.058.270	1.059.340	1.042.610	-16.730

Bilketa sistemaka

	Jasotakoa	%
Altsasu	345.629,25	33,15
Irurtzun	90.360,00	8,67
Atez atekoa	347.576,00	33,34
Mistoan	52.960,00	5,08
Industrialdeak	206.084,75	19,77
Guztira	1.042.610,00	100,00

Inpropioak: Sakandarrok 2017an 171.558,45 kilo hondakin ez genituen behar bezala birziklatu, aurreko urtean jaso zen guztiaren % 1,76 eta 9.849,6 gehiago. Sakandar bakoitzak 8,49 kilo hondakin inpropio sortu genituen.

	Jasotakoa	%
Organikoan	7.565,20	4,41
Ontzi arinak	95.562,85	55,70
Botikak	851,30	0,50
Emaus	66.256,00	38,62
Humana	1.323,10	0,77
Guztira	171.558,45	100,00

Beira: Iglu itxurako edukiontzietan eta atez ate jasotako beira hondakin guztien % 6,81 da (0,33ko jaitsiera). Sakandar bakoitzak 32,87 kilo beira hondakin sortu genituen 2017an. Beira kudeatzeaz Ecovidrio enpresa arduratzen da.

	2013	2014	2015	2016	2017	2016-2017 aldea
	642.580	669.200	587.455	663.743	663.470	-273

Bilketa sistemaka

	Jasotakoa	%
Altsasu	246.270	37,12
Irurtzun	48.930	7,37
Atez atekoa	287.500	43,33
Mistoan	80.770	12,17
Guztira	663.470	100,00

Berrerabilia: Joan den urtean jasotako hondakinen % 0,62 berrerabili zen soilik, 60.267 kilo hain zuzen ere. Sakandar bakoitzeko 2,99 kilo, joan den urtean baino 0,8 gutxiago.

	Jasotakoa	%
Emaus ehunak	2.623,00	4,35
Emaus altzariak	14.269,00	23,68
Emaus bestelakoak	3.682,00	6,11
Humana ehunak	39.693,00	65,86
Guztira	60.267,00	100

Bestelakoak

Hondakinak	Kiloak	%
Taimana handiko trasteak	198.783,00	23,60
Hondakindegian jasotako egurra	74.490,00	8,84
Tresna elektriko eta elektronikoak	64.921,00	7,71
Obra txikietako hondakina	20.120,00	2,39
Utzitako ibilgailuak	378.908,64	44,98
Botikak	2.400,07	0,28
Siloetako plastikoa	44.720,00	5,31
Filma industrialdeetan	42.643,00	5,06
Arriskutsuak garbigunean	15.487,00	1,84
Guztira	842.472,71	100

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

948 467 876 · Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

- Jaunartze oroigarriak
- Ezkontza gonbidapenak

Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

UHARTE ARAKILGO UDALAK UDAKO KANPAINARAKO 2 SOROSLE BEHAR DITU BERTAKO IGERILEKUETAN JARDUTEKO

Interesatuak Altsasuko INEMen izena eman behar dute, maiatzaren 16a arte.

UHARTE ARAKILGO UDALA

Motxila bete elkartasun biharko ekitaldian

Presoen seme-alabak, motxiladun umeak, izanen dira bihar ospatuko den Elkartasun eguneko protagonistak. Seme proiektua aurkeztuko dute kultur etxean, 12:30ean. Presoek bizi dituzten "salbuespenezko espetxe politikak" salatuko dituzte

ETXARRI ARANATZ

Euskal preso politikoekiko Elkartasun egune antolatu dute Etxarri Aranatz biliar. Antolatzaileek herrian zazpi preso daudela gogorarazi dute, eta haiei ezarritako "salbuespeneko espetxe politikak Etxarriko familia eta kuadrilla asko zigortzen" dituela. Gaineratu dutenez, "espetxe politika horrekin bukatzea eta preso guztiak etxerako bidean jartzea lehentasun osoko erronka da Etxarriko herriarendako".

Aurtengo Elkartasun egunek bi aldarrikapen nagusi izanen ditu. Batetik, motxiladun umeak bizi duten egoeraren salaketa eta, bestetik, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak martxan jarri duen ekimen politiko berriari babesa eskaintzea.

Seme proiektua

Aurkezpen horrekin hasiko da Elkartasun egune. Ohian Barandalla bere semearen jaiotza espetxetik nola bizi izan zuen kontatzen duen kantua sortu zuen, harmonikaz eta ahotsaz. Hura kantu bihurtu dute hainbat musikaririk eta bideoklipa ere osatu dute. Horiek aurkeztuko dituzte. Proiektu horren helburua da "motxiladun umei" elkartasuna adieraztea, haien



Joan den urteko Etxarriko Elkartasun Eguna. ARTXIBOA

errealitatea ezagutaraztea eta aurkezpen egunean haien aitei argazki erraldoia bidaltzea.

Etxarriko Saretik gogorarazi dute Sakanan bost "motxiladun" ume eta gazte daudela eta biharko ekitaldiarekin "herritarren babesa senti dezaten" nahi dute. "Azken boladan motxiladun ume moduan ikusarazi dugu kolektibo hau. Motxila horiek euren gurasoak ikusteko egin behar izaten dituzten milaka kilometroren isla dira. Egunerokoan gurasoen hutsunearekin bizitzeak zama afektibo handia eragiten

diela ukazinezko errealitatea da, gainera". Sarek salatu duenez, "espetxe politika gizagabeak gaur egun 104 haur eta nerabe hauei euren gurasoen ondoan hezteko eskubidea ukatzen die".

"Motxiladun umeen" manifestua zabaldu zuen Sarek eta 160 irakaslek, 5 orientatzailek, 3 zuzendarik, 5 zaintzailek, gizarte zerbitzueta 6 langilek, 2 erizainek, pediatra batek eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Haurtzaroko Tratu Onaren Sustapen Taldearen batzarrak babestu dute.



Okupaziori buruzko mahai-ingurua izanen da garagartzaroaren 22an. ARTXIBOA

Langileen egunarekin batera kontzientzia hartzera deitu dute

"Kontzientzia eskuratu, iraultza antolatu" jardunaldiak bihar hasiko dira; Irurtzunen, Leitzan eta Larraunen dira

IRURTZUN

Maiatzaren lehenaren, Langileen eguna, "kontzientzia eskuratzeko eta iraultza antolatzeko aitzakia idan dadila" nahi dute jardunaldien antolatzaileek. Zortzi hitzaldiz eta bi mahai-inguruz osatutako egitaraua prestatu dute, "borroka eta iraultza edukiz betetzeko". Izan ere, hainbat egoitza dituen jardunaldi horren antolatzaileen iritziz "langileriak sistema kapitalistan klase zapaldu posizioa du".

Hura gainditu nahi lukete, horretarako, "borroka botere

burgesarren suntsipenean, gainditzean eta langile boterearen antolaketan, eraikuntzan zentratu behar du". Euren iritziz "gure aukera bakarra gure bizitzaren esparru guztiak kapitalaren dinamikatik at eraikitzea da, langile kalearen garapen erreala gauzatzea". Eurek "ezinezkoa" jotzen dute "burgesiaren diktadurapean aske izatea", horregatik, "langile orori askatasunaren alde borrokatzea" deitu dituzte. Saioak baino 30 minutu lehenago Atekabeltzen, Pikuxarren eta Lekunberriko frontoian, autoz joateko.

Egitarauko aurreneko saioak

Apirilak 28, larunbata

- 18:00 Iraultzarako aukeraz hausnartuz. Irurtzungo kultur etxea.

Maiatzak 4, ostirala

- 18:00 Krisi kapitalista aztergai. Irurtzungo kultur etxea.

Maiatzak 11, ostirala

- 18:00 Independentzia politikorako apunte batzuk. Leitzako Atekabeltz gaztetxea.

Maiatzak 19, larunbata

- 18:00 Kataluniako esperientziatik ikasiz. Alliko Akelar lokala. Askapenako brigadista.

Garagartzaroak 2, larunbata

- 18:00 Nazio auzia aztergai. Astizko aterpetxea.

Garagartzaroak 9, larunbata

- 11:30 Errepresioaz mahai-ingurua: Leioako 6ak, Iruñeko 4ak askatu eta Tolosako kide bat. Leitzako Atekabeltz gaztetxea.
- 11:30 Bazkaria (txartelak hitzaldietan edo ohiko tokitan).

Ogiaren artisauak

PORTUKO

okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Biharko egitaraua

- 12:30 Motxila etorkizunez bete ekitaldia, kultur etxean.
- 14:30 Herri bazkaria.
- 17:30 Poteo askatzaile.
- 20:00 Denak etxia! manifestaziyue.
- 21:30 Bokata-jana.
- 22:30 Gaupasa: Tirri & Tery dj eta Bull dj.



Pentsio duinen alde herenegun Altsasun egindako kontzentrazioa. JUAN PEDRO HIGUERO

Pentsio duinak eskatzen segituko dute

Espainiako aurrekontuetarako lortutako akordioa ez dute nahikotzat jotzen eta gogorarazi dute gutxieneko 1.080 euroko pentsioa eskatzen dutela. Astelehenero 19:30ean, Altsasuko udaletxe aurreko aldean kontzentratuko dira

SAKANA

Herenegun zabaldu zen Espainiako aurrekontuak onartzeko adostasuna lortu zutela PPK eta EAJK. Hitzartutakoan artean pentsioen ingurukoak daude: aurten eta heldu den urtean pentsioak Kontsumo Prezioen Indizearen arabera eguneratuko dira eta aurten atzera eragina izanen du, hau da, ilbeltzetik jaso ez dutena ordainketa berezi batean jasoko lukete pentsiodunek; alargunen pentsioei dagokionez, hildako ezkontidearen pentsioaren oinarri likidagarriaren egungo % 52 jasotzen dute eta aurten % 58ra eta 2019an % 60ra igotzea onartu dute eta etorkizuneko pentsioak jaitsi

ditzakeen iraunkortasuneko faktorea 2.023an sartuko da indarrean.

Pentsionistak Martxan eta Otsailak 22 plataformak deituta atzo 50 bat pertsona elkartu ziren Altsasuko udaletxe parean pentsio duinen alde. Han bildutakoek iragarritako akordioa ez zuten nahikotzat jo. Egungo sistema publikoa mantendu nahi lukete haiek. Eta Nafarroarako pentsio sistema propioa aldarrikatu zuten. Gogoratu zuten euren 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen dutela eta akordioak 700 eurotik beherako pentsiodunendako 10 bat euroko igoera izanen dela gaztigitatu zuten. Kontsumo Prezioen

Indizearen arabera igoera bi urterako dela eta horiek pasata, atzera ere, % 0,25eko igoerara pasatzeko aukera dagoela nabarmendu zuten Altsasuko udaletxe parean elkartuta zeudentako batzuk.

Bizi itxaropena

Iraunkortasun faktorea heldu den urtean indarrean sartu beharrean 2.023an sartzea ere adostu dute. Hori da pentsioetan eragin handiena duen neurria, etorkizuneko pentsioak jaitsi eta sistema eramangarria egin asmoz alderdi popularraren botoekin bakarrik onartu zen azken erreforma. Neurri horren arabera gero eta bizi itxaropen handia-

goa, orduan eta urte gehiagotan banatu beharko da pentsioa. Esaterako, 2019an indarrean sartuko balitz, 2013-2017 urteen arteko bizi itxaropena hartuko lukete kontuan kalkulua egiteko. Eta tarte horretan bizi itxaropena luzatu zenez, hileroko % 0,47 gutxiago jasoko lukete 2019tik aurrera jubilatuak lirategian. Horren jakitun, hainbat pertsona jubilazioa aurreratzea aztertzen ari zirela esan ziguten, egungo sistemarekin hobe ateratzen zaielako.

Pentsiodunek esan zuten, "orain arte ez zegoen dirurik. Eta orain bai. Nahi dutenerako dago". Eta gobernua bere jarretatik mugiarazi duena mobilizazioak izan direla nabarmendu zuten. Aldi berean, egindako mugimenduak "nahasteko" eginak direla esan zuten, "politikoki eta ekonomikoki ez sufritzeko". 2019an hauteskunde urtea dela gogorarazi zuten ere.

Haien pentsioak, euren seme-alaben eta biloben pentsioak jokoan daudela uste dutelako gazteei eta helduei, gizarte osoari, pentsio duinen aldeko borroka batzeko eskatu diete. Bestalde, Iruñean Sasoiak eta Pentsionistak Martxan elkarteek egindako manifestazioaren ondoren, pentsio duinen alde greba orokorra egiteko beharra azpimarratu zuten. Pentsio duinak eskatzeko maiatzaren 5ean eta 26an manifestazioak deituta daude.

Bitartean, Espainiako Kongresuan dagoen talde berezia, Tolledoko Ituna, pentsioak eguneratzeko sistema berriak aztertzen ari da. Antza, inflazioa, Barne Produktu Gordinaren bilakaera, kotizazioen egoera eta soldatak aintzat hartuko lukeen formula aztertzen ari dira.

Errefuxiatuen aldeko bigarren eskuko azoka

Igandean, 10:00etatik 14:00etara bigarren eskuko azoka izanen da, Itxipururen ekimenez

IRURTZUN

Itxipuru taldeak antolatutako bigarren eskuko azokaren 34. edizioa izanen da igandekoa. Etxean bazterturik eta egoera onean dauden objektuei bigarren bizi bat emateko aukera da azoka. Bestelako kontsumo ereduak hausnartzeko aukera ere izan nahi du, kontsumo arduratsua eredu aldea egitearekin batera. Azokako salmahaietatik pasatzen diren maika ederrak opatzeko aukera izanen dute. Izan ere, oso prezio onean primerako arropa, liburuak diskoak, DVDak, etxetresna elektrikoak, apaingarriak eta beste eskuratzeko aukera izanen da.

Eta, ohienez, bigarren eskuko azokaren bidez lortutako diruarekin elkartasun proiektu bat lagunduko dute. Oraingoan Help-Na gobernuz kanpoko erakundearen aldekoa izanen da; Larrialdi Humanitarioetarako Nafarroako Suhiltzaile taldearen aldekoa hain zuen ere. Erakunde horrek Grezian eta Belgraden dauden errefuxiatuei laguntza ematen die. Eta igandean lortutako dirua egitasmo horiei bultzada ematera bideratuko dute. Azokan umeendako tailerrak eta jolasak, musika eta pintxo beroak izanen dira ere.



ERABAKI ZURE BIDEA

Goierri Eskolak Ate Irekien Jardunaldira gonbidatzen zaitu.
Ezagutu ezazu Lanbide Heziketako gure eskaintza.

• Goi Mailako zikloak • Erdi Mailako zikloak • Oinarrizko LH

Maiatzak 5, larunbata, 10:00etan

www.goierrieskola.eus



Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

Maiatzak 1: LABen manifestazioa Altsasun

Maiatzaren 1ean, 12:30ean, manifestazioa deitu du LAB sindikatuak Altsasun, "Lan, bizi eta herri duina helburu" lelopean. Gainontzeko sindikatuek eguerdian deitu dituzte euren jarraitzaileak, Iruñean

SAKANA

Maiatzaren lehena da asteartean, langileen eguna. Sindikatuek prest dituzte euren mobilizazio eta deialdiak egun seinlatu horretarako, aldarrikapenak ozen entzun daitezten.

Deialdi ugari

Sindikatu gehienek Iruñean antolatutako manifestazioak maiatzaren leheneko ekitaldiak. ELA sindikatuak "Pobreziari gerra! Soberan inor ez" lelopean Iruñeko Gurutze plazan bilduko ditu bere jarraitzaileak, 12:00etan. UGTk eta CCOO sindikatuek Iruñeko Conde Olivetton jarri dute hitzordua, 12:00etan, "Irabazteko garaia. Berdintasuna, enplegu hobea eta pentsio duinak" lelopean burutuko duen manifestaziorako.

Iruñeko Errekoleta plazan (baratzuriena) 12:00etan jarri dute hitzordua STEILASek, CNTk, CGTk, ESK-k, Solidarik, Nafar Libertarioak, Iruñerriko langabetuen kolektiboak eta Dale la Vuelta elkarteak.

Eta LAB sindikatuak Euskal Herriko hiriburuetan eta eskualde guztietan egingo ditu mobilizazioak, *Lan, bizi eta herri duina* lelopean. Horrela, Sakanara ere helduko da LAB sindikatuaren deialdia, Altsa-



12:30ean Foru plazatik irtengo da manifestazioa. ARTXIBOA

sura zehazki. 12:30ean abiatuko da manifestazioa, Altsasuko Foruen plazatik, eta bertan parte hartzeko deia egin diete sakanandar guztiei.

Altsasun

LABetik adierazi dutenez, "herriar orori lan eta bizi duina bermatzea, horixe izan behar luke herri baten eredu ekonomiko eta sozialaren helburu nagusia, baina IBEX 35ak eliteen mesedetan agintzen du beti eta kapitalak prekaritatea zabaltzen jarraitzen du gure lanean eta

gure bizitzan. Bi estatu antidemokratiko ditugu aurrean, Espainia eta Frantzia".

Sindikatuaren esanetan, aipatu bi estatuak "inboluzio sozial eta politikoa" sustatzen ari dira, "euskal herritarren gehiengoaren kaltetan". Horrela, lan esparruari dagokionez, ondoko lehentasunak ikusten dituzte: 1.200 euroko gutxieneko soldata; 35 orduko lan astea; 1080 euroko gutxieneko pentsioa; gizon eta emakumezkoen arteko soldata arrakala ezabatu; zaintza lanak aitortu; enplegu publikoa sortu....



Mikel Legarra, Jose Ramon Zelaia eta Mikel Idoate.

Alde Zaharreko beilatokia dagoeneko zabalik dago

Ostiralean mustu zuten Altsasu erdigunean dago, Gurutze Saindua kalean. 180 m²-ko azalera du

ALTSASU

Izarra Tanatorio taldeak Altsasuko beilatokia ostiralean zabaldu zuen. Haren arduradun Jose Ramon Zelaia altsasuarrak eta taldeko kudeatzaile Mikel Idoatek eta Mikel Legarra ekin-tzaileak harrera egin zieten zerbitzu berria ezagutzera gerturatu zirenei. Taldearen gainontzeko beilatokiaren modura, Altsasukoaren estiloaren ezaugarriak argia, espazioa eta kolore txuria dira.

Idoatek mustutze ekitaldian esan zuenez, "ilusioz gaude gure hileta-zerbitzua ulertzeko dugun

modu berria Sakanan emateko, hurbiltasunean, pertsonalizazioan eta berrikuntzan oinarrituz". Legarrak, berriz, Sakanan taldeak bi beilatoki izatea haren "berezia" zela aitortu zuen, "lurralde honekin harreman handia baitut, hainbat gauza konpartituz".

Beilatokia herriaren erdigunean egotea ere Izarrak hasieratik izan duen filosofia izan dela adierazi zuen Idoatek: "azken finean nahi duguna da pertsonen bere familia eta lagunak beti bizi izan diren tokian agurtzea, bere senideetatik hurbil".

Eskolak izen berria hartu du: Lakuntzako herri eskola

Luis Fuentes Ikastetxe Publikoko Eskola Kontseiluak proposamena bidali zion Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi Nekane Oroz Bretoni. Hark eskaera aztertu eta onartzea erabaki zen. Hala, orain arte Lakuntzako Luis Fuentes Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa izena zuen ikastetxeak deitura berria du: Lakuntzako Herri Eskola. Hala jaso zen apirilaren 5ean Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Luis Fuentes XIX mende akaberako botikariaren semea zen. 1934an Cerrajería San Antonio burdin galdategia sortu zuen. Udalak erabaki zuen eskolari bere izena ematea.

Arakildarrak Oskiako ermitara erromerian joanen dira

Urtero moduan, maiatzaren lehenarekin batera, arakildarrak Aralarko aingeruaren irudia lagun dutela errogatiba egingen dute. Irudi ibiltariak Arakilen barnako ibilbidea 09:00etan hasiko du Satrustegin. Handik Zuhatzura (09:15) eta Ekaira (09:30) joanen da eta Etxarrendik (10:20ean) pasa ondoren Urriazolara iritsiko da (10:45ean), Izurdiagara jaitsi (11:10ean) eta handik Errotza jotzeko (11:10).

Erromesek Errotzen ordu erdiko egonaldia egingen du eta ondoren Oskiako harraterantz joko du, han dagoen ermitan eguerdian meza izanen baita. Hura despeditu ondoren auzatea izanen da.

Sakana Harrera Harana Mugak Zabalduz karabanan

Euskal Herriko hainbat eragilek Mugak Zabalduz Euskal Herriko karabana antolatuko dute, Europako Batasaunaren "migrazio politika kriminalak" salatuz.

Apirilaren 28tik 30era hau da, bihartik astelehenera gauzatuko da Mugak Zabalduz Euskal Herriko karabana eta Sakana Harrera Harana taldeak bertan parte hartuko du.

Gaur, larunbatean, Hendaia-Andoain-Iruñea bidea egingo dute. Iruñean arraza baldintzetan oinarritutako sarekadetan kontrako salaketa egingen dute. Igandean, Iruñea, Tuter eta Gasteiz gurututako dituzte, eta astelehenean, Gasteiz, Bilbo, Zierbena eta Santurtzi zeharkatuko dituzte, Bilbon Maria Bihotzen plazan kontzertua ospatzeko.

Antolatutako ekitaldietan parte hartzeko deia egin du Sakana Harrera Haranak (www.mugak-zabalduz.eus).

Zelandi kiroldegiko harrera posturako lan poltsa berria

Atabo Enpresa Publikoak Zelandi kiroldegiko harrera posturako lan poltsa berria egin behar du, onartutako oinarrien arabera. Interesa duten pertsonak Altsasuko Udal Erregistroan eman behar dute izena, maiatzaren 3a baino lehen.

Oinarriak Altsasuko Udalaren web gunean kontsultatu daitezke: www.alsasua.net.



Etxarri Aranazko plaza bete zuten eskolen festan.

Sakanako eskolen festa eguzkitsua Etxarrin

Ibarreko bederatzita eskola publikoetako ordezkariak elkarrekin egun pasa ederra egin zuten

SAKANA

Eguraldi apartarekin ospatu zen Sakanako herri eskolekin Sortzen festa larunbatean, Etxarri Aranazten. Euskarazko eskola publikoek auzolanean antolatutako ospakizunaren berri eman zuten. Animazio ederra izan zen plaza inguruan. Goiz-goizetik ibarreko bederatzita eskola publiko bakoitzak bere tailer eskaintza egin zuen plazan. Tailer guztietan birziklatutako materialekin ongi pasatzeko aukera izan zuten denek, haur, gazte eta helduek. Eguerdian kalera atera zirenak Uharteko Arakilgo erraldoi konpartsa izan zen. Eta haiekin batera Irurtzungo Iskidi taldearen joaldun txikiak.

Flashmobearen txiki zein handi, prestatutako koreografia dantzatu zuten.

Frontoian puzgarriak eta eskaladan zaletzeko rokodromoa zuten txikiak. Han bertan elkartu ziren bazkaltzera izena emanda zeuden 410 pertsonak. Bazkaldu ondoren ospakizunaren protagonista musika izan zen, iluntzean zezensuzkoa agertu eta harekin festa bukatu arte.

Festa finantzatzeko denek eta enpresek emandako sariarekin osatutako tonbolak arrakasta handia izan zuen. Gurasoek egindako 17 postre ere zozketatu zituzten eta barra ere jarri zuten. Guztiek ere harrera ona izan zuten.



Lehen sektorea plazara

Belardi elkarteko Sakanako ekoizleek eta Nafarroatik etorritako beste batzuk, 20 guztira, euren ekoizpena zuzenean saldu zuten Etxarri Aranazko plazan igandean. Haien postuetan denetarik erosteko aukera izan zen. Antolakuntzak euskal txerria errea pintxo moduan zerbitzatzeko prest egon zen. 350 pintxo saldu zituzten edatekoarekin batera. +www.guaixe.eus

Udaberri atariko azoka igandean Arbizun

Landare eta loreak, liburuak, ukenduak eta hainbat artisauen lana ikusi eta eskuratzeko aukera izanen da igandean Arbizuko plazan. Udaberri azoka 10:30ean 14:30era arte izanen da bisitariak hartzen

ARBIZU

Aurten bederatzigarren aldia da udaberri azoka antolatzen dela Arbizun. Handik pasatzen direnak etxerako eta baratzerako lore eta landareak eskuratzeko aukera izanen dute. Gainera, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Bilketako Zerbitzuak konposta banatuko du.

Baina landareez aparte beste-lako postuak opatuko ditu Arbizuko plazan: Usurbilgo Urtinea loreak eta landareak, Zurlan, Arizkurengo kremak eta xaboiak, Mikel Berastegi eta Aroa Gorriti eztigileak, Tomas Mauleon zurgina, Miriam artisaua, barazkiak, Maite zeramika-egilea, Joseba kiliki egilea, Maika hazi eta olioekin, Arkatz liburu-denda eta Castillo Suarez eta Enara Insausti *Mainamikirri* liburuarrekin.

Plazan bertan Arbizuko Gure Esku Dago taldeko kideak euren postua jarriko dute eta taloak salduko dituzte. Bide batez,



Lorez beteko da Arbizu. ARTXIBOA

maiatzaren 19an, larunbat eguerdian Iruñeko Gaztelu plazan eginen den giza-armarri edo mosaikoaren berri emanen dute. Baita garagarrilaren 10ean Gasteiz Bilbo eta Donostia lotuko dituen giza katearen berri eman eta parte hartzeko moduez argibideak eman ere.

Bestalde, Liburuaren eguna dela eta udaletzeko batzar gelan Cristina Fernandez arbizuarraren ilustrazioen erakusketa ikusgai dago, astelehenera arte, arratsaldean. Liburuaren egunaren eta igandeko azokaren arteko zubilana eginez, atzo Jakoba Errekondok hitzaldia eman zuen jubilatuta elkartean.

Arrozek elkar ezagutzarako bidea zabaltzen

Munduko Arrozen ekimenaren 10. edizioa ospatu zen pasa den larunbatean Irurtzungo plazan. Primerako eguraldia lagun zutela, sukaldariak eta bisitariak errezetak partekatzeko aukera izan zuten. Bost kontinenteen berri eman zuten Atakondoa eskolako ikasleek Kulturartekotasun Astearen egindakoekin. Larunbatean mustu zen kooperazio-partxisean jokatzeko aukera izan zuten hainbatek. Errefuxiatuei eskainitako txokoa ere presente izan zen. Sukaldariendako eta nahi izan zuen guztia-erendako herri bazkaria zegoen eta hartan Marokon, Senegalen eta Irurtzunen jatorria zuten 34 irurtzundar elkartu ziren

MAIATZAK 1
LAN BIZI HERRI
BURUJABETZA EZKERRETIK
MANIFESTAZIOA
Foruen plaza • 12:00
ALTSASU
LAB

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 27

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

BAKAIKU Giza-armarriari buruzko azalpenak. Gure Esku Dago. 19:00etan, auzoan.

ALTSASU Kulturartekotasunaz hitz eginen du Patxi Zubizarretak. 19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Gorrion rojo* filma. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 28

IRURTZUN 29. Sakanako Ibilaldi Handia. 06:00etan, Iratxo elkartetik.

LAKUNTZA Amezketara mendi-ibilaldia. Zabalarte kluba. Goizean, plazatik.

ALTSASU Herrera itzulia 178 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek. 08:00etan, San Juan plazatik.

ALTSASU Estereotipoak alde batera utzita; bizikidetzaren pluralaren alde ikastaroa. 16-30 urtekoendako. Izena eman 948 564 785 edo 608 617 778.

10:00etatik 14:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ *Motxila etorkizunez bete* ekitaldia eta Seme proiektuaren aurkezpena. 12:30ean, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Elkartasun eguna. 12:30etik aurrera.

IRURTZUN Iraultzarako aukerak hausnartuz. 18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Septimo A. Kataluniako musika taldearen kontzertua. 18:00etan, plazan.

IRAÑETA Klabezin kontzertua. Pedro Jose Rodriguezekin. 19:00etan, errementariaren etxe ondoan.

ALTSASU *Valdemorillos for ever*. lortia antzerki tailerraren obra. 19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 29

ALTSASU Urederra iturburura, 54 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubak. 08:30ean, abiatuko dira euren egoitzatik; 09:10ean Urbasako portuan.

IRURTZUN Bigarren eskuko azoka. Itxipuru taldea. 10:00etatik 14:00etara, plazan.

ARBIZU Udaberriko azoka. 10:00etatik 14:30era, plazan.

ALTSASU *Una familia feliz* filmaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Gorrion rojo* filma. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 30

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. Otsailak 22 plataforma eta Pentsionistak Martxan. 19:30ean, udaletxe parean.

IRURTZUN *Zatoz jolasera!* Irrien Lagunak. 18:00etan, barazki gunen.

ALTSASU *Erritu*. Kukai eta Sharon Fridmanen ikuskizuna. 18:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 1

ALTSASU *Lan, bizi, herri duina*. LAB sindikatuaren manifestazioa. 12:30ean, Foru plazatik.

ALTSASU *Erritu*. Kukai eta Sharon Fridmanen. 18:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 2

ALTSASU Gazte asanbladaren bilera. 19:30ean, plazan.

OSTEGUNA 3

ALTSASU Ezabaketa kalejira. 18:30ean, gaztetxetik.

ALTSASU *Una razon brillante* filmaren emanaldia. 19:00ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. Kontzentrazioa. 19:30ean, plazan.



IRURTZUN Greziara karabana. Mugak zabalduz (2016). Txefo Mendezzen argazkiak. Maiatzaren 4ra arte Irurtzongo Pikuxar euskal txokoan ikusgai.

ALTSASU Parlamentu baten irudiak erakusketa, Nafarroako Parlamentuak antolatuta. Maiatzaren 6ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



ARBIZU. Haurrendako liburuak eta Cristina Fernandezen ilustrazioak. Arratsalde, udaletxeko batzar gelan.



ZIORDIA Book face erakusketa. Garagarrilaren 1era arte, arratsalde, liburutegian.

ZORION AGURRAK



Oinatz
13 muxu txapeldun!!
Ongi pasa zu egunien



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarras.com
www.dekovenavarras.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otadiko ermitaren alde. Eraikina konponitzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Eplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin lan-gabeei eta lan bila dabilenenganako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagu-nak@gmail.com edo

amigosefinaarreguilagu-nak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pabxi) telefonoetara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoa

Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon la-

guntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

www.iragarkiaburrak.eus

JAIOTZAK

- **Aiala Etxeberria Garmendia,** apirilaren 9an Etxarri Aranatzan
- **Alain Lopez de Sabando Alegria,** apirilaren 10ean Etxarri Aranatzan
- **Jone Huarte Fernandino,** apirilaren 18an Uharteko Arakilen
- **Ganix Leitza Mendinueta,** apirilaren 19an Arbizun
- **Amets Agirre Martin,** apirilaren 20an Altsasun

EZKONTZAK

- **Raul Andrés Cuesta eta Ainhoa Ganuza Aiestaran,** apirilaren 16an Etxarri Aranatzan
- **Mikel Sasiain Morales eta Maider Iraurgi Arrieta,** apirilaren 20an Etxarri Aranatzan

EZKONTZAK

- **Angela Ezkerra Beltza,** apirilaren 21ean Etxarri Aranatzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Zure iragarki laburra gure

Merkatu txikian

948 56 42 75

iragarkiak@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak



Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen


gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:


- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 27




Larunbata, 28



Igandea, 29



Astelehena, 30



ESKELA



Angela Ezkerra Belza

"Amiña Angelita"

Libre hegan ein arima bihurri, alai ta gazte betiko gukin yonko za denon biyotzan barne

Eskerrik asko amiña yakusitako guziangatik

Etxekuek

Etxarri Aranatzan, 2018ko apirilaren 27an

URTEURRENA



Jose Inazio Reparaz Lizarraga

I. urteurrena

Lizarragabangoan, 2018ko apirilaren 29an

Zeinen erraza zu maitatzea. Gure bihotzetan betiko

Zu familiya

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Joseba Ezkurdiak ongi hasi zen Jakaren kontra, 19 eta 7 aurreratu zen, baina partida ixtea kostatu zitzaion. ASPE

Jakaren ondoren, Irribarria zain

PILOTA Joseba Ezkurdiak 22 eta 15 irabazi zion Erik Jakari ostiralean Altsasun jokotutako Buruz Buruko final zortzirenetako partidari. Igandean, Eibarren, Iker Irribarria du zain txapelketako final laurdenetan eta lehia estuagoa espero da

Ostiralean Buruz Buruko final zortzirenetako partida jokatu zuten Joseba Ezkurdiak eta Erik Jakak Altsasun. Ezkurdiak zen faboritoa eta ez zuen hutsik egin, baina arbizuarrak ederki izerditu behar izan zuen Jaka irabazteko, partida ixtea kostatu egin zitzaiolako.

Bi pilotariak parez pare hasi ziren, baina Joseba Ezkurdiak,

sakearen eta Jakaren akatsen laguntzarekin 10 eta 5, 15 eta 6 eta 19 eta 7 aurreratu egin zen. Baina partida guztiz bideratuta zuela, bukatzea kostatu egin zitzaion eta Jaka, gutxinaka, distantzia gutxitzen hasi zen. Horrela, 7 tantoko takada egin zuen segidan 19 eta 14 gerturatu zen markagailuan. Ezkurdiak bi atsede-

nak eskatu zituen eta, azkenean, Jakak egindako dejada bat bikain erantzun eta sakea berreskuratu zuen. Azkenean, 22 eta 15 irabazi zuen aurrelari arbizuarrak eta txapelketan aurrera egin zuen: final zortzirenetan Iker Irribarriaren kontra ariko da.

Iribarriaren kontrako partida beste kontu bat izango da Ez-

kurdiarendako. Partida gogoragoa aurreikusten da. Irribarriak Buruz Buruko prestatzeko asti gehiago izan du eta arerio oso gogorra izango da aurrelari arbizuarrarendako. Partida igandean jokatuko dute, 17:00etan Eibarko Astelenan hasiko den partidari (ETB1). Ostegunean egin zuten material aukeraketa.

Beste partidak

Final laurdenetako beste partidari, Olaizola II.ak Rezusta izango du aurkari ostiralean Bergaran (22:00, ETB1), Bengoetxea VI.a Elezkanoren kontra ariko da larunbatean Labriten (ETB1) eta Urrutikoetxearen eta Altunaren arteko lehia asteartean, maiatzaren lehenean jokatuko da Donostiako Atano III. ean (ETB1).

Promesetan, Bakaikoa ostiralean sartuko da lehian

Ostiraleko Altsasuko jaialdia Promesen mailak Buruz Buruko partida batek zabaldu behar zuen, Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Dariok jokatu beharrekoa, baina azkenean atzeratu egin da partida hori. Ostiraleko Bergarako jaialdia zabalduko dute Bakaikoak eta Dariok. Beraien partez, binakako partida batek ireki zuen Altsasuko jaialdia. Mendizabal III.ari eta Adur Lasari 18 eta 22 irabazi zieten Ugaldek eta Merinok.

PILOTA Irurtzungo Pilota Txapelketa Etxarrenen jokoan

Martxoaren 31n hasi zen XXVI. Irurtzungo Pilota Txapelketa. Bi mailatan jokatu ari da: 22 urtez azpiko mailan (12 bikote) eta senior mailan (24 bikote). Puntako pilotariak guztiak.

Aurreko asteburuan, ostiralean Zubiriak eta Altunak 22 eta 14 irabazi zieten Lansaloti eta Kortabarriari eta Iriartek eta Sarasak 22 eta 16 Olanori eta Lizeagari. Larunbatean, Arrieta eta Urruzola 21 eta 22 hartu zituzten menpean Garciak eta Aldabek, Adonis eta Aranguren 16 tantotan utzi zituzten Armendarizek eta Alduntzinek eta Gutierrezek eta Apezetxeak 22 eta 7 irabazi zieten Azkune-ri eta Goikoetxeari.

Irurtzungo Txapelketa

Asteburu honetako partidak Etxarrenen pilotalekuan jokatu dira. Ostiralean bi partida eta larunbatean bat jokatu dira.

Ostiralean, 19:00etan, Etxarrenen:

- Nazabal-Arbizu / Josue-Bidaurreta
- Telletxea-Odriozola / Garmendia-Bastarrika

Larunbatean, 11:30ean, Etxarrenen:

- Mugiro-Agirre / Elola-Galartza

PILOTA Maiatzaren 4an Zabaleta omenduko dute Irurtzunen

Jose Javier Zabaleta pilotaria etxarrendarra da baina Irurtzunenekin lotura handia du. Bertan egin zituen ikasketak eta Irurtzun pilota klubean trebatu zen. Horrela, Ezkurdiarekin batera Binakako txapelduna den etxarrendarra Irurtzunen omenduko dute, maiatzaren 4an, hurrengo ostiralean, 22:00etan. Aspek antolatu du ekitaldia, Irurtzungo eta Arakilgo udalen eta Irurtzun pilota klubaren laguntzarekin. Pilota jaialdi ederra antolatu dute horretarako Irurtzungo Biaizpe pilotalekuan. Jaialdia zabaldu duen partidari Ugaldek eta Adur Lasak Elordi eta Martinez izango dituzte aurkari, eta partidari nagusian Ezkurdiak edo



Zabaleta Binkakako finalean. ASPE

Irribarriak -Buruz Burukoan asteburu honetan elkarren kontra duten partidako galtzaileak eta Martijak Retegi Bi eta Zabaleta izango dituzte aurkari. Aurretiazko sarrerak salgai daude Plazaola Hotelean.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea - Infanzones	0-2
Etxarri Aranatz - Arrotxapea	1-2

SAILKAPENA	
1. Infanzones	54
12. Lagun Artea	28
13. Etxarri Aranatz	26

PARTIDUAK

LARUNBATEAN	
17:00	Arrotxapea - Lagun Artea <i>Iruñea</i>

IGANDEAN

17:00	Etxarri - Artajones <i>Etxarri</i>
-------	------------------------------------

Lagun Arteak dominatu zuen, baina ez zuen golik sartu. Aparteko ezer egin gabe, irabazi zuen liderrak. Etxarri aurreratu zen baina despiste batengatik eta aldeko falta batengatik irabazi zuen Arrotxapeak.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Itaroa Huarte - Altsasu	0-0

2. FASEKO SAILKAPENA	
1. Burlades	27
6. Altsasu	14

IGOERA FASEA. PARTIDUA

LARUNBATEAN

16:00	Altsasu - Burlades <i>Dantzaleku</i>
-------	--------------------------------------

Huertek dominatu zuen, baina ez ziren gola sartzeko kapazak izan. Altsasuk ongi eutsi eta puntu bat lortu zuen.

ELOMENDI TXAPELKETA

EMAITZAK	
Izalsa - Zaldua	3-2

SAILKAPENA	
1. Unziti	57
3. Zaldua	44

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe	Zaldua - Ardoi Poukas <i>Lekunberri</i>
--------------	---

Izalsaren kontra galdu zuen Zalduek, baina hirugarren postuari heltzen dio.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Lagunak - Altsasu	4-0

SAILKAPENA	
1. Berriozar	82
13. Altsasu	24

OSTIRALEAN

18:00	Altsasu - Castejon <i>Dantzaleku</i>
-------	--------------------------------------

Asteburuan sailkapenean bigarrena den Lagunak taldearen kontra galdu egin zuten Altsasuko neskek. Gaur, ostiralean, sailkapenean zazpigarrena den Castejón taldea hartuko dute, Dantzalekuan. Ea hiru puntuak etxean geratzen diren.



Joseba Iza arbizuarra, I. Tritoiako helmugara iristen.

Tritoiena mendi lasterketarako izena ematea zabalik dago

MENDI LASTERKETAK Ekainaren 16an jokatu da, eta www.kirolprobak.com web orrian eman behar da izena

Arbizuko ekokanpinak hainbat laguntzailerekin batera antolatuta, ekainaren 16an, goizeko 9:30ean jokatu da Tritoiena mendi lasterketa, Arbizon eta Ergoienako mendi ederretan barna.

Aurreko urtean irailean jokatu zen Tritoiena, eguraldi oso kaxkarrarekin, eta proba oso luzea izan zen, 30 km-koa. Lizarragako tunela igo, Andian barna ibili, Dorrao eta Unanura jaitsi eta Beriain igo eta jaitsi behar zuten korrikalariak, Arbizuko ekokanpinean bukatzeko. Aurten proba ekainera aurre-

ratzea eta proba laburragoa egitea erabaki dute antolatzaileek. Horrela, Arbizuko ekokanpinetik aterata, Ondatzetik igoko dira Unanura, handik Beriain igotzeko. Uhartea Arakilgo portutik jaitsiko dira, Arbizuko kanpineko helmugarantz.

Izena ematea zabalik dago, ekainaren 15era arte, www.kirolprobak.com web gunean (18 euro).

Ibilbidea ikusteko

Interneteko ondoko helbidean: <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/tritoiena-23705629>

Katarain bosgarrena Aloñan eta Beraza laugarrena Berroetan

MENDI LASTERKETAK Erkuden San Martin bigarren emakume onena izan zen Berroetan

Igandean XIV. Aloñako igoera jokatu zen (22,6 km, 1.868 d+), Euskal Herriko Txapelketarako baliaigarria. 281 korrikalari osatu zuten proba, Aloñan bildu ziren zaleen berotasuna lagun, eta erakustaldi bikaina eman eta gero, Imanol Goñik (2:00:09) eta Oihana Aizkorbebeitiak (2:25:11) irabazi zuten. Beñat Katarain lakuntzarra fin ibili zen ere eta bosgarrena sartu zen (2:06:54). Xuban Mendiola etxarriarra 162.a (2:54:22) eta Aran Larrañaga uharterra 257.a (3:25:10) sailkatu ziren.

Berroetan Beraza fin

Igandean Berroeta-Saioa-Berroeta mendi maratoni erdia jokatu zen (21,6 km, 1.274 d+), proba ederra baina, aldi berean, gogorra. 43 korrikalari sailkatu ziren, Ioseba Diaz azkoitiarra (1:58:31) eta Aiara Garaialde segurarra (2:42:03) buru zirela.

Jose Luis Beraza uharterra laugarrena sailkatu zen (2:04:22), probako lehen beteranoa, eta aipatzekoa da ere Erkuden San Martin etxarriarra probako bigarren emakumea izan zela, helmugan 35.a (2:49:15).

Dena prest biharko 29. Sakanako Ibilaldirako

MENDIA Ibilaldi Handikoak bihar goizeko 6:00etan abiatuko dira, Ibilbide Motzekoak 7:30ean eta Ibilbide Txikikoak 9:30ean. Momentuz 768 mendizale daude izena emanda eta bihar bertan ere apuntatzeko aukera dago

Bihar, larunbatean, apirilaren 28an, Iratxo elkarteak hainbat entitatekin eta babesleren laguntzarekin antolatutako 29. Sakanako Ibilaldia goizean goiz abiatuko da. Nafarroako mendi ibilbide zaharrena da, xarma berezia du eta mendizaleek izugarri baloratzen dute: klasikoa bilakatu da.

Sakanako Ibilaldia proba ez lehiakorra da, ez da sailkapenik egiten. Helburua Sakanako paisaia eta mendi zoragarriez gozatzea da. Hiru ibilbide daude aukeran: Ibilbide Luzea (54 km, 3.388 m desnibela), Ibilbide Motza (25,5 km, 1.440 m desnibela) eta Ibilbide Txikia (14 km, 736 m desnibela). Sakanako Ibilaldia Nafarroako eta Euskal Herriko Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Zirkuituetan sartua dago.

768 izena emanda

Aurreko urtean 1.203 mendizale hartu zuten parte Sakanako Ibilaldian. Aurten antzeko kopurua hartzeko nahikoa azpiegitura du prest Iratxo taldeak. Momentuz, aurretik 768 mendizale daude izena emanda (412 Ibilaldi Handian, 233 Ibilaldi Motzean eta 123 Ibilaldi Txikian) eta beste 36 mendizale daude konfirmatzeko. "Horri bihar, probaren egunean bertan izena ematen dutenen kopurua gehitu behar zaio, eta egiten duen eguraldiaren arabera izango da" aipatu dute Iratxotik. "Mendizaleak etortzera animatu nahi ditugu, egun bikaina pasatzera animatu daitezela. Paisaia eta ibilbide zoragarrietatik ibiltzeko aukera izango dute" gaineratu dute.

Mendizaleei ingurumena zaintzeko eskaria egin die antolakuntzak. Bitarteko guztiak jarririko dituzte zaborrak behar bezala jasotzeko, eta horiek erabili eta gure ingurumena zaintzearen garrantziaz ohartaraziko dituzte mendizaleak.



Mendizaleak Aralarrean iristear, aurreko urteko Sakanako Ibilaldian.

SAKANAKO IBILALDIA MENDIZALEEN FESTA HANDIA DA ETA GIRO OSO POLITA EGOTEN DA IRURTZUNEN

50-60 boluntario

Guztia behar bezala prestatzeko, 50-60 pertsona inguru ariko dira lanean eta herritarren eta boluntarioen babesa eskertu nahi du antolakuntzak. Bestalde, antolakuntzak Atakondoa eskolako gimnasioa prest dauka, norbaitek martxaren aurreko gaua bertan eman nahi badu. Bihar, goizeko 5:00etatik irekiko da Iratxoko taberna. Ibilbidean barna hornidura eta kontrol guneak izango dituzte eskura mendizaleek eta DYAk probaren martxa zainduko du. Behin proba bukatuta, guztiak kamiseta eta diploma jasoko dute. Gainera, mendi materiala zozketatuko da guztien artean.

Aipatzekoa da, Ibilbide Txikia despeditzen denean, txikiaren rokodromoa eta jokoak izango dituztela prest plazan. Txikiengandien mendizaleak susta-

tu nahi da, harrobia landu eta trebatu. Horregatik antolatzen da, hain zuzen ere, Ibilbide Txikia.

Irteerak

Ibilbide Luzekoak goizeko 6:00etan aterako dira, Ibilbide Motzekoak goizeko 7:30ean eta Ibilbide Txikikoak goizeko 9:30ean.

Izena emateko

Bihar, goizeko 5:00etatik aurrera, Iratxo elkarteak (Ibilbide Handia eta Ibilbide Motza, 15 euro. Ibilbide Txikikoak, 14 urtez azpikoak 4 euro eta 14 urtetik gorakoak 8 euro).

Bukaeran kontzertua

Sakanako Ibilaldia girotzeko Séptimo A musika taldeak kontzertua eskainiko du Irurtzango plazan, 18:00etan, Pikuxar euskal txokoak antolatuta. Kataluniatik dator taldea eta 3 disko dituzte, azkena aurtan kaleratutakoa.

Informazio guztia

Sakanako Ibilaldiaren informazio guztia, ibilbideak eta beste, Iratxo elkartearen web orrian: www.iratxoelkartea.com.



Eguraldia lagun, gustura ibili ziren Bizi Mendi Duatloian parte hartu zutenak. Emakume asko animatu ziren.

Loizaga eta Unda Bizi Mendi Duatloiko garaileak

MENDI DUATLOIA Minutu bat eta 25 segundo atera zizkieten Iker Flores eta Mikel Sarasola sakandarrei. 108 bikotek hartu zuten parte Nafarroa Oinezek Altsasun antolatutako binakako proban. Bukaeran, bazkaria izan zen Iñigo Aritza ikastolan

Larunbatean jokatu zen Nafarroa Oinezek antolatutako Bizi Mendi Duatloia. 121 bikote zeuden izena emanda, eta horietatik 108 bikotek hartu zuten parte, 216 partaidek, horietatik asko emakumeak. Proba berezia zen, binakakoa: lehen parte-hartzaileak 23 km osatu behar zituen mendi bizikletan eta bikotekideari txanda pasatu eta gero, bigarrenak 7 km egin behar zituen korrika. Eguraldia lagun, gustura ekin zioten probari. Altsasuko auzipetuetako seni-

tarteko batek, Adur Ramirez de Alda Pozuetaren arrebak, moztu zuen hasierako zinta.

Txirrindulariak izan ziren lehenak. Altsasuko Foru plazatik aterata, San Pedrotik Urdiaingo igerilekuetaraino jo behar zuten, eta Mauriako bidea hartuta, ibilbide ederra egin behar zuten Iturmendiko Pilare ermitara iritsi arte. Handik Urdiaingo San Juan ermitara jo behar zuten eta Urdiaingo baserrietatik Altsasura, azkenean ikastolatik barna buelta eman

eta gero, Altsasuko Foru Plaza-
ra heltzeko. Erritmo bizian ibili ziren txirrindulariak, ibilbide aurretik motorrean zebiltzanak ia harrapatzeraino. Antolakuntzak goizeko zazpitan markatu zuen ibilbidea, baina badirudi norbaitek markak aldatu zituela, eta partaide batzuk bidean nahasi egin ziren eta horregatik barkamena eskatu zuen antolakuntzak.

Bizikleta segmentuan Mikel Sarasola izan zen azkarrena eta Iker Flores egin zion txanda-

pasa. Azken honek korrikako tarteari ekin zion, Basoitz, San Pedroko bidea eta hainbat paraje eder zeharkatzen zituen 7 km-ko ibilbidea, proba Foru plazan despeditzeko. Tarte honetan jarraika zituzten bizkaitarrak izan ziren finago, eta, azkenean Mikel Loizagak eta Mikel Undak irabazi zuten Bizi Mendi Duatloia (1:13:10), Iker Flores eta Mikel Sarasolaren aurretik (1:14:35). Jon Escala eta Iñigo Lasarte izan ziren hirugarrenak (1:15:07) eta Iñaki eta Xabier Garmendia Beunza laugarrenak (1:15:46).

Talde mistoetan, Irati Larrañaga eta Josu Urrestarazu gailendu ziren (1:20:25), Garazi Artola eta Aritz Pagola (1:24:19) eta Frenando Ganuza eta Izaskun Beunza (1:25:05) bikoteen aurretik. Eta emakumezkoen taldeetan Mikele Etxekolonea eta Sarai Maritorea izan ziren azkarrenak (1:46:30), Iruñe Lazkano eta Gartzte Mentxaka (1:58:28) eta Ainara de Migelen eta Leire Gonzalezen aurretik (2:05:23). Partaide guztiek jaso zuten kamiseta opari eta bukaeran lote ederrak zozketatu ziren.

Bazkaria

Nafarroa Oinezek bazkaria antolatu zuen Iñigo Aritza ikastolan. Ia 200 pertsona bildu ziren trikitixek eta bestek alaitutako bazkarian.

Sailkapena

Sailkapen guztia www.nafarroaoinez.eus web gunean kontsulta daiteke.

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUEN PARTIDUAK

IGANDEAN, ZIORDIAN

10:00 Etxarri Aranatz - Tipi Tapa

10:00 Kaixo - Lagun Artea

11:00 Urdiain - Sutegi

Igandean, kimuak

Igandean Sakanako Futbol Topaketan kimuen mailako 14. jardunaldia hartuko du Ziordiak, goizeko 10:00etatik aurrera. Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu topaketak, txikienei futbol txapelketa batean aritzea ahalbidertzeko. Ez da sailkapenik egiten.



CBASK play-offetarako sailkatu da.

SASKIBALOIA CBASK Altsasu, atzera ere lider

Nafarroako Gizonezkoen Senior I. Maila Autonomikoan Altsasuko CBASK taldeak Escaleras Aguerri 78 eta 45 irabazi zion eta ligako lidergoa berreskuratu zuen CBASK-ek (41+10). Bigarren Liceo Monjardin da (39-2). Larunbatean aipatu bi taldeek lidergoa izango dute jokoan. Liceo Monjardinen kontra ariko da CBASK aipatu Lizeoan, Iruñean, larunbatean, 18:00etan.

SOKATIRA Nafarroako Txapelketako 3. saioa bihar Antsoainen

Bihar jokatuko da Nafarroako Lauko Sokatira Txapelketako 3. jardunaldia, 17:00etan, Antsoainen. Lehen bi jardunaldiak jokatuta, kadeteen 280 kilotan Basaburua da talderik onena (10 puntu), Iñigo Aritza (8 puntu) eta Andra Mari (4 puntu) taldeen aurretik. Berriozar laugarrena dago sailkapenean (4,5 puntu) eta Anar bosgarrena (3,5 puntu).





UTZITAKOA

June Kintana, urrezkoa

DISKO JAURTIKETA Espainiako Txapelketa Unibertsitarioak jokatu berri dira Andujarren (Jaen). June Kintana bakaikuarra Leongo Unibertsitatearekin lehiatu da, bertan baitago albaitaritzak ikasketak egiten. June Kintanak urrezko domina lortu zuen, 52,13 metroko disko jaurtiketa bikaina egin eta gero.



Nafarroako junior mailako selekzioa. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Etxeberria, Etxezarreta eta Astitz Nafarroako selekzioan

TXIRRINDULARITZA Gipuzkoako XXIV. Klasikoan, Etxeberria bigarrena izan zen eta Nafarroako selekzioa hirugarrena

Igandean Nafarroako junior mailako selekzioa XXIV. Klasika Gipuzkoan aritu zen, Azpeitian. Slekzioan hiru sakandar aritu ziren, hirurak Aralar klubeko Intersport Irabia taldekoak: Iosu Etxeberria, Beñat Etxezarreta eta Inhar Astitz. Haiekin batera Mikel Retegik, Unai Esparak eta Diego Uriartek osatu zuten Nafarroako selekzioa.

Lasterketa bikaina egin zuen Nafarroak. Errezilgo arranpa gogorrenetan sortutako ihesaldian sartu zen Iosu Etxeberria eta bigarrena izan zen helmugan, Portugalgo selekzioko Alfonso

Silva irabazletik (2:31:12) 35 segundora. Halaber, lehenengo euskaldunaren saria jaso zuen Iturmendikoak eta mendiko sailkapenean bigarrena izan zen. Gainontzeko taldekideek lan ona egin zuten –Beñat Etxezarreta 79.a eta Inhar Astitz 104.a– eta Nafarroa, taldekako sailkapenean hirugarren sailkatu zen.

Bezperan Lizarran lehiatu ziren juniorrak. Ford Garajeko Daniil Turukek irabazi zuen. Tartean, Josu Etxeberria 4.a, Urko Gorriti 9.a, Jon Gil 18.a eta Inhar Astitz 19.a sailkatu ziren.

Burunda Trofeoa etxekoendako

TXIRRINDULARITZA Burunda klubeko Quesos Albenizko Unai Aznarrek irabazi zuen proba, Aitor Alberdi, Iker Mintegi eta Igor Arrietaren aurretik. Quesos Albeniz izan zen talderik onena, Intersport Irabiaren aurretik

Igandean jokatu zen, Altsasun, Burunda Klubak antolatutako kadete mailako XXXI. Burunda Txirrindulari Elkarte Trofeoa. Puntako txirrindulariak bildu ziren, tartean Sakanako Burunda eta Aralar klubekoak. Proba Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria izan zen.

Guztira 51 km osatu behar izan zituzten txirrindulariek. Etxeko taldeak, Burundako Quesos Albeniz taldeak, erakustaldi bikaina egin zuen. Laukote bat iritsi zen helmugara, Burundako Quesos Albeniz taldeko bi kidez eta Aralar-ko Intersport Irabiako beste bi kidez osatuta. Azkenean, Quesos Albenizko Unai Aznarrek irabazi zuen proba, esprintean, Intersport Irabia taldeko Aitor Alberdiren, bere taldekide Iker Mintegiren eta Intersport Irabiako Igor Arrietaren aurretik.

Gainontzeko txirrindulari sakandarrek ere lan ona egin zuten. Sergio Lopez (Q.A.) 10.a sartu zen helmugara, Hugo Aznar (Q.A.) 12.a, Martzel Etxeberria (I.I.) 14.a, Jon Erdozia (I.I.) 25.a, Ion Chamorro (Q.A.) 30.a, Antonio Gonzalez (Q.A.) 33.a eta Oihan Etxeberria (Q.A.) 37.a. Igor Arrietak mendiko eta tarteko helmugen sailkapenak irabazi zituen, kadeteen lehen



Helmugan esprint ikusgarria eskaini zuten lau sakandarrak. BURUNDA

urteko sailkapenean Sergio Lopez izan zen lehena eta taldekako sailkapena Quesos Albenizek irabazi zuen, Intersport Irabia taldearen aurretik.

Afizionatuak: Rural Kutxaren bi garaipen

Igandean LXIV. San Prudencio Saria jokatu zen Duranan, Lehendakari txapelketarako baliagarria. 118 km-ko lasterketa oso lehiatuan Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Pol Hervás gailendu zen esprintean. Bere taldekide Daniel Viejo hirugarrena-

sartu zen. Eta Espainiako Txapelketarako baliagarria den Memorial Momparler proban Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko David Gonzalezek irabazi zuen.

Erbitik Liejako klasikoan

Igandean jokatu zen Lieja-Bastonia-Lieja, Ardeetako Triptiko hiruugarren eta azken klasiko (258 km). Quick Step taldeko Bob Jungels bakarrik iritsi zen helmugara (6:24:44). Movistar Team taldeko Imanol Erbiti 126.a sartu zen, 18:15era.

Garikoitz Flores Ubriquen

AUTOMOBILISMOA Asteburuan Espainiako Mendi Txapelketako baliagarria den 2. lasterketa jokatu zen, Ubrique-Benaocaz igogera. 2. kategorian denbora onena egiten ari zen Garikoitz Flores lakuntzarra (BRC B49), baina autoa geldirik geratu zitzaion eta ezin izan zuen garaipena lortu. Espainiako Mendi Txapelketako 2. kategorian bigarrena da orain Flores.



UTZITAKOA



Ioseba Fernandez, Anne Lapuente, Iratxe Lapuente eta Unai Baztan, larunbatean domina lortu zuten sakandarrak. SAKANA PATIN

Ioseba Fernandezzen Munduko errekorra

IRISTAKETA Nafarroako Iristaketa Zirkuitu Txapelketan 100 metroan zirkuituko errekor berria ezarri du: 9,604 segundu. Iristalari sakandarrek 9 domina lortu dituzte txapelketan. Bihar Sakanako Iristalarien Topaketa antolatu dute Olaztin

Iruñeko Antoniuttik Nafarroako Zirkuitu Txapelketa hartu zuen larunbatean, kimuen, haurren, jubenilen, juniorren eta seniorren mailan. Guztira Sakanako 11 iristalari lehiatu ziren eta maila bikaina eman zuten.

Errekorra: 9,604 segundu

Lasterketa bikainak jokatu ziren, eta tartean Ioseba Fernandez

iristalari iturmendiarrak 100 metroko zirkuituko munduko errekor berria ezarri zuen: 9,604 segundu (aurrekoa 9,660 segundotan zegoen). Fernandezek sasoi betean jarraitzen du, eta bere asmoa 2019an Bartzelonan jokatu diren World Roller Gamesetan aritzea da.

Proban Sakanako 11 iristalari hartu zuten parte, gehienak

Sakana Patin taldekoak: kimuetan Enara Arregi, Maialen Pain, Intza Unamuno, Eukene Baquez, Iratxe Lapuente, Iker Gomez eta Oier Ormazabal; haurretan Maddi Goya, Mara Gomez, Yeraik Goikoetxea eta Ane Arregi; jubeniletan Ana Rita Correia eta Anne Lapuente (biak Lagunak taldekoak); juniorretan Unai Baztan (Amaia) eta Unai Villa-

lobos (Lagunak, lesioagatik ez zen aritu) eta seniorretan Kevin Marques (San Juan) eta Ioseba Fernandez (Berriro Ere).

Sakandarrendako 9 domina

Iratxe Lapuente lehena izan zen 500 m sprintean, bigarrena 1.500 m linean eta lehena 3.000 m puntuetan. Anne Lapuente hirugarrena sailkatu zen zirkuituko bueltan; Unai Baztan hirugarrena izan zen zirkuituko bueltan, bigarrena 10.000 m puntuetan eta bigarrena 20.000 m kanporaketan, eta Ioseba Fernandez lehena 100 m sprintean (munduko errekorra, 9,604 segundu) eta lehena zirkuituko bueltan.

Txikiak Barañainen

Larunbatean, Barañaingo Lagunak-eko pistan Nafarroako Txikien Ligako 3. jardunaldia jokatu zen. Sakana Patin taldeko Enara Perez, Gaizka Flores, Jon Urkizar eta Oier Ormazabal aritu ziren, eta maila ona eman zuten.

Larunbatean Sakanako iristalarien topaketa

Sakanako Mankomunitateak, Sakanako iristaketa taldeen laguntzarekin, Sakanako Iristalarien Topaketa antolatu du bihar, larunbatean, apirilaren 28an, Olaztiko Erburua kiroldegian, 17:00etan. Eta maiatzaren 1ean Txantreako Iristaketa Trofeoa jokatu da.



Tatono Arregi eta Roberto Martil. XOTA

ARETO FUTBOLA Ligako azken partida jokoan Osasuna Magnak

Aurreko asteburuan Osasuna Magnak garaipen garrantzitsua lortu zuen Peñiscolaren kontra (2 eta 4). Saldise, Martil, Nakata eta Victor izan ziren golegileak. Sailkapenean Movistar Inter da liderra (68 puntu) eta Osasuna Magna bosgarrena da (61 puntu), laugarrena den Jaenekin puntutara berdinduta. Asteburuan ligako azken partida jokatu da eta laugarren postu hori lortu nahi du talde berdeak. Gaur O Parrulo hartuko du 19:00etan eta ea garaipena lortzen duen.

Bestalde, Osasuna Magnak Roberto Martil irurtzundarrari kontratua berri dio, beste bi denboraldirako. "Nire herriko taldean jarraituko dut, nire klu-bean" adierazi du Martilek.



SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Sakanako Orientazio proba

MENDIA Sakanako ikastetxeek antolatuta, Sakanako Mankomunitatearen eta Arbizuko Udalaren laguntzarekin, asteazkenean Sakanako orientazio proban 196 ikasle eta 20 irakasle hartu zuten parte, gehienak DBH 4 mailakoak eta baita ere DBH 3 mailakoak. Arbizuko basoan, Sandindegi eta Zubat aldean ibili ziren, iparroratzak eta mapak eskuan, orientazio proban parte hartzen. Ondoko ikastetxeetako ikasleak aritu ziren: Andra Mari

ikastola (33 ikasle), Agurain Institutua (42 ikasle), Altsasuko Institutua (74 ikasle), Altsasuko ikastola (27 ikasle) eta Korazonistak (20 ikasle). Jardunaren helburuak dira, besteak beste, basoan segurtasunez ibiltzen ikastea eta mapa eta iparrorratza interpretatzen eta erabiltzen ikastea; ikasleen arteko talde lana bulkatzea; Sakanako naturguneak ezagutzeko; ikastetxeen arteko harremanak bulkatzea eta euskara erabiltzea.



lortiaiko antzerki tailerreko zazpi aktoreak oholztan. www.guaixe.eus-en bideoa ikus daiteke.

Loteria sariak herri oso bat nahastu zueneko

Altsasuko lortiaiko antzerki tailerrak "Valdemorillos for ever" antzezlana aurkeztuko du larunbatean, 19:30ean, lortia kultur gunean. Loteriak saritutako txartel baten eskualdatzeak herri batean sortuko dituenak antzeztuko dituzte

ALFREDO

Zazpi altsasuar Birjiñe Albira zuzendariaren esanetara jarri ziren lortiaiko antzerki tailerrean eta guztiek egindako lana jendaurrean aurkezteko garaia iritsi zaie. "Nola esan... komedia antzeko zerbait izan daiteke, baina puntu beltz batekin. Oso beltza. Edo oso gorria, ikuspegiaren arabera". Zer aurreratu dezakeen galdetuta Albirak esan digu "gauzak ez direla ikusten diren bezalakoak. Oso onak direnak ez dira hain onak. Eta batzuetan maltzurak direnak ordaintzen dute".

Antzerki tailerreko zuzendariak bihar jokatu den antzezlaren hariaren berri laburra eman digu: "herri txiki batean loteria saltzaileak bere lana egiten du eta txartel batzuk saltzen ditu. Horietako bat saritutakoa da. Kontua da erosi duena ez dela orain saritutako txartela duena. Hor dago koxka! Berehala jakiten da zer gertatu den txartel horrekin" Antza, herri-

tarrak bidegabekeriaren aurrean elkartuko dira. Albirari *Valdemorillos for ever* izenburuaz galdetu diogu eta zera erantzun digu: "egia esan, batzuetan gauzarik zailena izenburua bilatzea da. Batzuetan desesperazioak atea jotzen du eta halako gauzak ateratzen dira".

Haiak sortua

Iortia antzerki tailerreko kideek sortutakoa da bihar jokatu duten antzezlana. "Lehendabizi pertsonaiak sortu genituen. Gero ideia hortik agertu zen. Pertsonaiak eta ideia irabiagailuan sartu eta nahastura horretatik istorioa atera zen".

Antzerki tailerra aurreko urteetan lastailean hasi da lanean. "Aurten ez. Arazoak izan genituen eta lastailean beharrez azaro erdialdean hasi ginen. Tailerra egiten zen edo ez, hor ibili zen. Nahikoa jende ez omen zegoen. Zazpi zeuden izena emanda. Hasteko kopuru polita da, baina martxan hasteko jendea-

ren zain egon ziren eta azaroaren erdira arte ez genuen ezer

egin". Beraz, antzezlana prestatzeko aurreko urteetan baino denbora gutxiago izan dute. "Gainera, ikasturtean zehar bi baja izan genituen", argitu digu zuzendariak.

Albirak esan digunez, lanari "serio-serio" otsailean heldu zioten. Antzerki tailerreko zuzendariak aitortu du batzuk

eskarmentua dutela; "berri pare bat ditugu. Baina besteek badakite zer den hau". Zuzendariak aitortu duenez, "estresatu samar ibili gara; baina, bestetik, oso gustura lanean. Denbora gutxiago izan dugu, baina pila bat aprobetxatu dugu". Eta emaitza bihar ikusteko aukera izanen da.

Zein da zein?

- **Sergio Molero.** Loteria saltzailea. Herriko oso mutil jatorra, lasaia eta bihotz onekoa. Bere gauzak baditu.
- **Jone Pelaez.** Plazan duen postuan fruta saltzen du. Narratzailearen papera egiten du fruta saltzaile horrek ere, Publikoarekiko lotura nolabait.
- **Eder Goikoetxea.** Filosofoa. Herriko alkatea oso berezia da eta bakarren batek galderaren edo buruhausteren bat badu filosofoarekin hitz egin dezan kontratatu du. Herriko plazan irakurtzen dago, zain.
- **Santi Goikoetxea.** Herriko mutil bat da eta esnatzen den moduaren arabera edozer gauza izan daiteke. Egun honetan zehar hiru pertsonaia desberdin dira pertsonaia berean. Valdemor izena du, baina La Jenny edo beste edonor izan daiteke.
- **Alberto Alvaro.** Alkate jauna. Oso alkate lasaia, herriari begira dagoena. Berak loteria tokatzea nahi du, baina diru hori herrian inbertitzeko, ez berak hortik etekinik ateratzeko.
- **Beatriz Ganuza.** Ez da herrikoa. Eta nabari da. Desberdina da. Oso langilea. Valdemorillosera ailegatzerakoan lehen momentutik ez da herrikoekin oso ongi moldatzen. Lanera etorri da. Batean berarekin hitz egiten hasten dira, berak ez du inorekin harremanik izan. Emakume honek ez du giro polita sortzen.
- **Isabel Borrega.** Herriko emakumea, nahiko kuxkuxera eta kontakatilua. Baina bizitza dauka. Bera da loteria erosten duena. Bere arazoa herri osoarena da eta konpondu behar du. Nola? Ikusi beharko duzue.

IRAKURRI
GOZATU
OPARITU

1001 mundu

LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO 8 TXEKEREN ZOZKETA

IRABAZLEAK:

Xuban Agerre (Lakuntza)
Alaia Bengoetxea (Urdiain)
Marta Elxarri (Egiarreta)
Eukene Zuntzarren (Irurtzun)
Mireia Gartzandia (Elxarri A...)
Iker Ondarra (Ziordia)
Malen Izagirre (Arbizu)
Jon Franco (Altsasu)

Txeketak liburutegian jaso ahal izanen dituzue

Alegrek publikoaren saria jaso zuen Iruñean

32. Nafarroako bertsolari gazteen txapelketatik sari horrekin bueltatu zen altsasuarra

ALTSASU

32. Nafarroako bertsolari gazteen txapelketa Xabat Illarregi leizarrak irabazi zuen pasa den ostiralean. Buruz burukoan, harekin Ekhiñe Zapiain beratarra izan zen. Eta biek ordezkaturiko dute Nafarroa Euskal Herriko Eskolarteko txapelketan garagarriaren 9an, Saran. Bestetik, Ekain Alegre altsasuarrak entzuleen saria eskuratu zuen. Harekin publikoak Alegrek txapelketan zehar izandako jarrera, ahalegina, umorea eta bestelako baloreak eskertu zituen.

11 izan ziren ostiralean Iruñeko Maravillas gaztetxeko aretoan parte hartu zutenak: Idurre Villanueva, Zuhara Zaratiegi, Amaia Lasheras, Enma Murillo, Beñat Astiz, Xabat Illarregi, Etxahun Azkarraga, Ekhiñe Zapiain, Iratxe Muxika, Uxue Mesa eta Ekain Alegre. Lehen-



Ekain Alegre bertsotzen. BERTSO ELKARTEA

fasean egindako lana baloratu eta lauk egin zuten aurrera: Illarregi, Zapiain, Alegre eta Mesa. Egin beharreko ariketen ondoren, Alegre buruz burukotik kanpo gelditu zen. Altsasuarra publikoaren aitortzarekin bueltatu zen etxera.



Emanaldiko une bat. UTZITAKOAK

Txistulariek eta abesbatzak kontzertu ederra eskaini zuten

Burundar Txistulariak eta Etxarri Aranazko abesbatzak larunbatean publikoa aseta utzi zuten *Baga, biga, higa* kontzertuarekin. Denek izan zuten luzitzeko aukera. Altsasuko emanaldia galdu zutenek maiatzaren 6an, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan entzuteko eta ikusteko aukera izanen dute. Eta biek beste nonbaiten aritzeko aukera ez lukete baztertuko.



Dora Salazar eskultorea omendu dute. UTZITAKOAK

Artea Oinez erakusketa Iruñean ikusgai dago

Aurten Dora Salazar eskultore altsasuarra omendu du Nafarroa Oinezek antolatutako erakusketak

SAKANA

Artea Oinez da udaberriarekin batera sortzen den erakusketa, lastailean etorriko den Nafarroa Oinez iragartzen duena. Urtero ikastola antolatzailea lagundu nahian hainbat sortzailek euren lanak ikastetxearen eskura jartzen dute. Iñigo Aritzak antolatuko du aurten Nafarroa Oinez eta 74 sortzailearen eskultura, argazki, margolan eta grabaturekin ondu du Artea Oinez erakusketa, apirilaren 13tik maiatzaren 5era Iruñeko Kondestablearen Jauregian ikusgai dagoena eta maiatzaren 11tik aurrera Altsasuko Iortia kultur gunean.

Erakusketa lan duten 74 sortzaileetatik 16 sakandarrak dira. Gainera, haietako bat, Dora Salazar aurten artista omendua da eta erakusketan aparteko lekua du. Nafarroako Ikastolen Elkarte zuzendari eta erakusketako komisario Josu

Reparazek esan zenez, “Artea Oinez 2018k Dora Salazar aukeratu du artista kuttun, bere lan artistikoaren kategoriak eta ikastolei, beti, eskainitako mugarik gabeko eskuzabaltasunagatik”. Iñigo Aritzak Ikastolako zuzendari Ibai Iriartek azpimarratu zuen bai hizkuntzak bai arteak duten garrantzia kulturaren transmisioan, eta BIZI, aurtengo leloa gogoratuz esan zuen “biak, hizkuntza eta kultura, bizi egin behar direla”.

Erakusketako sakandarrak

Honakoak dira parte hartzen dutenak: Itxaso Altelai, Jose Ramon Anda, Koldo Aranz, Argiñe Berastegi, Gorka Flores, Ana Goikoetxea, Asun Goikoetxea, Sagri Mauleon, Itziar Nazabal, Mikel Okiñena, Maider Perkaz, Txuspo Poyo, Bidatz Razkin, Dora Salazar, Helena Santano eta Irati Urrestarazu.



Bakardadea 3

Bakardadearen jatorria eta ondorioak aztertu ondoren, japoniar gizartearen arau zorrotzak gaintzen dituen gizakiaren baitan dagoen bizi iraupenaren garaia da.

Bai, gizarteak eboluzionatu egin du garai ezberdinetan zehar sistema politiko, ekonomiko eta erlijiosoak sortuz. Sistema hauek ez dira beti pertsona guztien onurarako sortu, adibide garbiak ditugu feudalismoa eta esklabotza. Hala ere, beti aurrera egin dugu.

Telebistan Japoniako gizartearen baztertuta bizi ziren zenbait pertsonen bizimodua aztertzen zuten programa bat ikusi nuen orain dela zenbait hilabete. Bertan, aurreko artikuluetan aztertutako arrazoiak zirela eta, gizon eta emakume ezberdinak teknologian murgiltzen ziren, pertsonak baztertuz. Batzuk,

interneten bidez soilik izaten zuten harremana pertsonekin. Beste batzuk (gizonezkoak esango nuke denak) panpinak zituzten neska lagun bezala, sexu harremanak izateko. Eta azkeneko taldeak animalia bizi bat maskota bezala izan beharrean, animalia robotat erosten zuten. Ez zuten ezer jakin nahi bizia izaki batekin, ez pertsonak ez animaliak.

Robotak bere nagusiaren aurpegia ezagutzen zuten, eta prestakuntza baten ondoren, aurpegiak islatzen zuten espresioa ulertzen zuten. Etxera iristean bazekiten nagusia triste, pozik edo haserre zegoen eta horren arabera bere nagusiari modu batez edo beste batez hitz egiten zion.

Baina hona hemen kontraesana: bat-batean, beste gizakiekin trataturik izan nahi



ez zuten pertsona hauek, robotak zituzten beste pertsonekin bildu nahi zuten robotak haien artean nola moldatzen ziren ikusteko. Eta topaketak antolatzen zituzten beraien robotak elkarrekin hitz egiten ikusteko. Azkenean taldetxoak egin eta denak taldean biltzen ziren astero roboten aitzakiarekin, eta norbait joaten ez zenean faltan botatzen zuten.

Giro arrotz eta zailean egon arren, gizakia animalia soziala da eta beti bilatzen du modua besteekin bildu eta harremana izateko. Gizarte bezala aurrera egingo dugu beti bizi iraupena lortzeko sortzen zaizkigun arazoak gaintuz.

Dantzariak kalean dantzan

Elai Alai dantza taldeak bere eguna ospatu zuen igandean. Egunderrak talde giroa sortzeko balio izan zuen. 5 eta 18 urte arteko dantzarien segizioa herrian barna dantzatu zuen. Elai Alai taldekoak ez dira geldirik egonen. Entseguez aparte, Nafarroako Dantzari Txiki Egunaren antolaketaz arduratuko dira aurten. Maiatzaren 26an izanen da hitzordua.



UTZITAKOAK

20 urtez gogoko literatur lanak aukeratzen

Euskal Herriko ikastoletako ikasleek aukeratutako lanen artean Joana Zigandaren eta Iker Uriberen "Ni neu galtzeta" (6-8 urtekoen maila), Castillo Suarezen "Agur, Agur!" (8-10 urte) eta Jon Arretxeren "19 kamera" (12-16 urte) liburuak daude

SAKANAK

Liburuaren eguna dela eta, 20. urtez Ikastolen Elkartek Juul hauteskundeak antolatu zituen (www.juulkanpaina.eus). Haien bidez ikastoletako ikasleek Haur eta Gazte-literaturan argitaratutako liburuak eta ilustratzaileak zein diren adierazteko aukera izan zuten, botoa emanaz. Bide batez hauteskunde sistema nolakoa den ikasteko aukera dute. Apirilaren 17an egindako bozketan 54 ikastoletako ikasleek parte hartu zuten. Liburuaren atalean 15.832 boto zenbatu zituzten eta ilustratzaileenetan 7.338. Botoa betiko boto-txartela eta bozketak elektronikoa izan ziren.



Ilustratzaileak

1. Juan Luis Landa.
2. Iñaki Martiarena, Mattin.
3. Jose Mari Morcillo, Morkots.
4. Mikel Santos, Belatz.
5. Iker Uribe.



Sakanako ikastolak

JUUL 2018		LIBURU HAUTATUENAK		
Kategoria	Izenburua	Idazlea	Urtea	Argitaletxea
3 - 6 urte	1 Munstro arrosa	Olga de Dios	2016	Denonartean
	2 Ilartxo	Davide Cali	2016	Ibaizabal
	3 Tango iritsita, hiru dira	Justin Richardson	2016	Pamiela-Kalandraka
6 - 8 urte	1 Ni neu galtzeta	Joana Ziganda	2017	Autoedizioa
	2 Paxkalin	Castillo Suarez	2016	Elkar
	3 Bat Pat - Sorginkeria izugarria	Roberto Pavanello	2017	Mensajero-Bitarte
8 - 10 urte	1 Agur, Agur!	Castillo Suarez	2015	Erein
	2 Munstro bat edukiontzian	Maribel Aiertza	2014	Elkar
	3 Futboleroak 1 - Lokartutako arbitroen misterioa	Roberto Garcia	2017	Ikasmina
10 - 12 urte	1 Metro bateko letrak	Julen Gabiria	2014	Elkar
	2 Beti Iparralderantz	Jon Arretxe	2017	Erein
	3 Argixorjin	Estibaliz Vivanco	2014	Elkar
12 - 16 urte	1 Beti Iparralderantz	Jon Arretxe	2017	Erein
	2 Ezekiel	Jasone Osoro	2014	Elkar
	3 Ezekiel nora ezean	Jasone Osoro	2014	Elkar

Irakurleak liburuaren zati

Ziordiko liburutegian Book face erakusketa ekainera arte ikusgai.



Kontzertu erraldoiaren entsegua.

Kontzertu Erraldoiarekin musika kalera atera zuten ikasleek

Barañaingo Alaitz eta Altsasu institutueta 260 ikasleek osatutako musika taldeak kontzertua eman zuten atzo

ALTSASU

Abendutik entseatzen aritu eta gero Altsasu institutuko 200 ikasleek, Barañaingo Alaitzeko 60rekin batera, kontzertua eman zuten Altsasun atzo. Emanaldia ostegunean Iruñeko Anaitasuna kiroldegian errepikatuko dute sakandarrek. Orduan hiriburuko Biurdana institutukoekin ariko dira. Ikastetxe hori Irurtzango eskolako DBHko errefereentziatzko zentroa da.

Iñigo Aldunate Burguete irakasleak azaldu digunez, DBHko 1., 3. eta 4. mailako ikasleak abenduan hasi ziren erreperto-

ria txirularekin lantzen. Beste instrumentuek lagundu zieten.

Musikeatzen

Kontzertu Erraldoia Musikeatzen ekimenaren barruan dago. Atzoko egunez estatu guztian barnea halako makina bat emanaldi izan ziren. Horrela, "musika heziketa kalera atera, klaseetan lantzen duguna erakutsi eta presente egotea nahi dugu. Eta, gainera, hezkuntzan musikak duen garrantzia erakutsi eta musikari berari balioa eman nahi diogu". Nafarroan 2.300 ikasle atera ziren kalera atzo.



UTZITAKOIA

Dantzarima Baluartan

Emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren alde egindako lana aitortzeko Nafarroako Gobernuak aurreneko Berdinna saria banatu zuen herenegun. Saritua Blanca Fernandez Viguera izan zen. Sari banaketan Dantzarima dantza taldekoak euren "Ahizpatasuna" dantza dantzatu zuten. Emanaldiarekin pozik gelditu ziren. Sarituarekin izan ziren ere.

"Klabezinendako musikak oso kalitate handia du"

Pedro Jose Rodriguez Larrañagak pianoa eta klabezina jotzen ditu. Biekin aritzen bada ere, azken musika tresna horrekin ariko da bihar, 19:00etan, Irañetan, errementariaren etxe ondoan. Klabezina eta barroko garaiko musika ezagutzeko aukera aparta

Alfredo Alvaro Igoa IRAÑETA

1 Barka, baina, zer da klabezin bat?

Klabezina pianoa bezalakoa da, teklatu bat du. Baina pianoa baino lehen jaio zen. Horregatik, klabezinarekin musika egiten dugunean antzinako musika egiten dugu. Kasu honetan barrokoko, XVIII. mendeko musika.

2 Beraz, pianoaren familiakoa?

Pianoa klabezinaren ondoren jaio zen eta orduan klabezina desagertu zen. Pianoa klabezina baino indartsuagoa da eta, horregatik, bi instrumentu hauek ezin zuten elkarrekin bizi.

3 Pianoaren gogortasuna klabezinaren suabetasuna gainditu zuen?

Hori da. Instrumentu nahikoa mugatua da. Instrumentu zoragarria da eta nik asko-asko maite dut. Baina egia da pianoa klabezina baino indartsuagoa dela, horregatik, desagertu zen.

4 Zer nolako erreperitorioa dago klabezinarendako?

Barrokoko musika guztia klabezinarendako egin zen.



Pedro Jose Rodriguez Larrañaga klabezinaren aurrean.

5 Desagertu ondoren berreskuratuko zenuten, zeren bihar kontzertua dago, ezta?

Esan dut desagertu zela. Inork ez zuen gehiago klabezina jo. Operan segitu zuen klabezinak eta, ondoren, XX. mendean musika asko idatzi zen klabezinarendako. "Revival" bat izan zen. Orain klabezina asko jotzen da, baina beti antzinako musika.



6 Nolako soinua du?

Diferentzia oso garrantzitsua da. Pianoak kolpatutako sokekin ateratzen du soinua. Horregatik, pianoak suabe eta fuerte ateratzen du soinua. Klabezineko sokei, berriz, "atximiska" egiten zaie, gitarrari eta harpari bezala. Klabezinaren sistemarekin ezin da "forte eta piano" jo. Pianoa jaiotzean pianoforte deitzen zen. Berritasuna zen "forte eta piano" jo zitekeela eta klabezinarekin ez. Baina klabezin batek bi teklatu izan ditzake. Kontzertu honetan nire instrumentua erabiliko dut eta nireak bi teklatu ditu. Bi teklatu horiekin efektu asko egin ditzaket: teklatu batean jo edo bi teklatuak konekta ditzaket. Horregatik, zerbait egin dezaket "forte eta piano". Baina ez da piano moderno batean bezala.

7 Non ikasi zenuen jotzen?

Donostiarra naiz eta gaztetan ikasketak hango kontserbatorioan egin nituen. Eta 20 urterekin piano-jole laguntzaile lanpostua lortu nuen Iruñeko kontserbatorioan. Nire lan nagusia beti izan da beste musikariekin jotzea. Uste dut oso ongi egiten dudala eta lan asko-asko dut. Iruñean duela 15 urte utzi eta orain Donostiako Musiken lan egiten dut eta han ere piano-jole laguntzailea naiz. Baina asko-asko maite dut klabezina. Antzinako musika egiten dut beti. Nire kasuan esan dezaket bi instrumentu jotzen ditudala. Nire instrumentu nagusia pianoa da, baina asko maite dut klabezina, eta asko jotzen dut klabezina. Harekin kontzertu asko egiten ditut, taldeekin, orkestrekin... Ez dut

askotan bakarrik jotzen. Kontzertu hau niretako ez da egunero egiten dudan zerbait. Zerbait berria da niretako. Esan behar dut ere kontzertu hau joan den larunbatean Musikeneko auditoriumean jo nuela; eta duela hilabete bat Kataluniako herri txiki batean. Lana egin nuen, programa hau prestatu nuen eta pentsatu nuen nire herrian eta Musikenen jotzea ideia ona zela.

8 Zein erreperitorio joko duzu?

Kasu honetan guztia XVIII. mendeko lehen erdikoa da. Lehendabiziko zatian Telemann, Couperin eta Handel joko ditut eta bigarrean Bach.

9 Interprete asko zaudete?

Ez. Klabezina ez da oso ezaguna. Jende gutxik jotzen du.

10 Beraz, zaudetenak dei asko jasoko dituzue.

Egia esan, bai. Zorte handia dut. Nire kasuan kontzertu asko ditut, bai. Jende askok behar du norbait klabezina jotzeko. Edo fortepiano. Beste instrumentu bat da. Adibidez, udan, Donostiako hamabostaldiko operan joko dut. Baina kasu horretan fortepianoa. Hori lehen pianoa dela esan daiteke.

11 Esan duzu erreperitorioa badoagoela...

Erreperitorio zoragarria! Klabezinendako egindako musikak oso kalitate handia du. Klabezina jotzen dugunak zortekoak gara, gure musika oso-oso ona delako. Halako klabezin errezitala oso esperientzia polita izan daitekeela.

Osorik: www.guaixe.eus

HERRIKO FESTETAKO EGITARAUAK

KARTELAK, ESKUORRIAK...

ESKATU INFORMAZIOA INONGO KONPROMEZURIK GABE

948 564 275 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus